



Euskal Harriaren ABDak euskarazko film kolektiboa martitzenean egongo da ikusgai Algortan; Egizuk antolatuta. ▶17

Anodino Teatro taldeak Zerura eroria obraren aurre-estrenaldia egingo du zapatuan, hilak 30, Sopelako Kurtzio kultur etxean. ▶19



hiruka

Uribe Kostako astekaria



46. zenbakia

2016ko
urtarrilaren 28tik
otsailaren 3ra arte

Euskal Agenda prest

Gorlizko eta Plentziako udalek euskarazko ekitaldiz osatutako agenda bateratua prestatuko dute aurten.

Euskaldunen sarea handitzeko asmoz, egitasmoa aurkeztuko dute urtarrilaren 29an, Danontzat gaztetxean.

Agendak lau zutabe garrantzitsu hartuko ditu: soziolinguistika, kultura, sorkuntza, eta historia edo ondarea. ▶7



San Blas Eguna, otsailaren 3an

Urtero legez, Barrikan San Blas jaia ospatuko dute Andra Mari elizan eta Elorduy egoitzan. Koloretako kordelak, erroskillak eta egongo dira salgai. ▶5

KIROLAK GETXO

Kros historikoa

Itxartu Taldearen krosak 30 urte beteko ditu domekan. Lasterketa mistoak adinaren arabera 10 kategoria dauzka.

Izen-ematea doan egin daiteke Internetez, Kantxa Kirol Modan eta Gaztañaga kirol-modan, egueneko 24:00ak arte. Halere, lasterketaren egunean ere aukera egongo da. ▶20

HERRIZ HERRI URIBE KOSTA

Emakumeak ahalduztzeko

Urtarriletik maiatzera bitartean, emakumeak ahalduztzeko ikastaroak eskainiko dituzte, herrietan. ▶7

HERRIAK SOPELA

Kontuak onartuta

Sopelako Udalak aurrekontuak onartu ditu 2016rako; EAJK eta PSEk osatutako udal-gobernuak eta Denok Batera alderdiak akordioa erdietsi eta abenduko ohiko udalbatzan onartu zituzten. Horrela, urte honetarako adostutako zenbatekoa hau da: 13.952.558,26 euro. ▶5

Expo baby & Kids

2016ko Otsailaren 19, 20 eta 21

Otsaila: 14.00etatik 20.00etara | Larunbata eta Igandea: 10.00etatik 20.00etara

Sarrera 5€
descartu bonuarekin
ohiko prezioa 10€
Deskarga ezazu zure devotioa: www.expo-baby.com

Zure sarrerarekin OPARIA MOMENTUAN
"Irakurketa lehiaketa" eta "Irakurketa lehiaketa" bidez

Erosi zure sarrera on line

ETOR ZAITEZ ETA GOZATU UMEENTZAKO PRODUKTU ETA ZERBITZUEN BERRI ETA DESKONTU ZORAGARRIEKINI
2016ko SARRERAKO UMEENTZAKO PRODUKTUEN JOZKETAZAN PARTE HARTUO DUTU

DOAKO ZERBITZUAK BISITARIARENTZAT

Haur-masaje taler gela	Konferentzia eta hitzaldi gela
Haur-ohial aldaketa gela	Eskulanean gela
Edoskitze gela	Haur-kolxeentzako parkinga
Haur jatetxe gela	Txiki Park

www.expo-baby.com | expobaby@igloolevents.com | 94 045 02 22 | 608 606 046

hiruka Uribe Kostako astekaria

Hezkuntza gehigarri berezia



Bagoi instituzionala, bagoi soziala

Erabakitzeko eskubidearen trenak bagoi soziala behar du, bagoi instituzionalaz gain», esan zigun Juan Jose Ibarretxe lehendakariak urtarilaren 19an lepo betetako Andres Isasi aretoan; areago, onartu zuen bagoi soziala falta izan zitzaiola karguan zegoenean gidatu zuen erabakitzearen aldeko saioari.

Etxera itzuli nintzenean, aipatu kontzeptuaren larregizko lausotasuna gogotan, aurkitu nintzen Enbata.info astekari jaso berrian gaiari zetoziola iruditu zitzaizkidan Txetx Etcheverryren adierazpen batzuekin: labur esanda, abertzaleen jarduna ezin dela identitate premiei erantzutera mugatu, hauek oso garrantzitsuak izanda ere, eta erantzun zehatzak eman behar dizkiela jendeak egunero pairatzen dituen krisi eta arazoei, hala nola, lana, osasuna, etxebizitza, garraioa, bizi baldintzak edota ingurugiroaren krisi eta arazoei. Horra hor, pentsatu nuen, bagoi sozialaren egitekoa: aipatu diren arazo eta krisiei erantzunak eratu ahala, identitate eta erabakitzeko eskubide hutsetik harago, identitatea eta erabakimena eraikitzea.

Horrelako bagoi sozialak traba egiten die teoriarabakitzeko eskubidea aldeztu duten kudeatzaile politiko askori. Hori eman du aditzera, esaterako, Urkullu lehendakariak bere «alarma» erakutsi duenean «ardurarik gabeko mugimendu sozialak» Kataluniako prozesuan izaten ari diren eraginagatik: utikan demokrazia parte-hartzailea!, ulertzen zaio ardurarik gabeko botere ekonomikoaren tiraniak inoiz alarmerik erakutsi ez duen agintariari.

Bagoi sozialak, ordea, instituzioen esaneko segizio baino, prozesua azkartzeko bultzatzaile egiten duen lokomotorra behar du izan. Bere ikuspegiarekin, exijentziekin, indarrarekin. ◀

Getxo

Uholdeetatik babesteko obrak, Fadura inguruan

Gobela ibaiaren emaria kontrolatzeko lanak hasi dituzte, kiroldegia inguruan. Obrek eragina izango dute zirkulazioan.

URA Uraren Euskal Agentziak uriolei aurre egiteko lanak hasi berri ditu Faduran, Larrañazubi eta Salsidu arteko Gobela ibaiaren tartean, hain zuzen ere. Lanok amaitzeko 12 hilabete beharko dituzte. Lehenengo hilabeteetan, Fadura kiroldegiko bidea aldatu eta behin-behineko pasabide bat ipiniko dute, frontoietara sartzeko zubia eraitsi eta berria eraikiko baitute. Obrak egiteko 2,6 milioi euroko aurrekontua dago. Errekaganeko eta Fadurako lanak burutu ostean, 100 urteko itzultze aldiko ur-goraldien ur-laminak hartuko duen maila nabarmen jaitsiko dela iragarri dute. Gobelan lanok egin baino lehenagoko egoeragaz alderatuta, ur-laminak 1,44 metro behera egingo du gutxien jaisten den eremuetan;



Frontoietara sartzeko zubia eraitsi eta berria eraikiko dute.

gehien jaisten den horietan, berriz, 2,28 metro egingo du behera, URAko arduradunen arabera. «Ondorioz, herriguneko eremu zabalak ur-goraldi horietatik kanpo geldituko dira».

Hurrengo hilabeteotako obrek hainbat kirol ekipamendu eta aparka-

lekuri eragingo diete. Baina daborduko, lehenengo eragina izan dute lanok zirkulazioan eta Getxo futbol-taldearen zelaiko eta kiroldegiko frontoietako aparkalekuetan. Halaber, padeleko kanpoko hiru zelai ezin izango direla erabili aurreikusitako dute. ◀



Ortuak egin ahal izateko moldatu dute Zubilletako eremu handi bat.

Irregularitasunak salatu dituzte Zubilletako Ortu Ludikoetan

Getxoko Udalak eta URA Uraren Euskal Agentziak Algortako Zubilleta inguruan Ortu Ludikoak egiteko baimena onartzeko orduan, «irregularitasunak egon» direla uste du GUK-k. Bertoko zuhaitzak kendu eta tonaka simaur pilatu ondoren, lursailaren maila «moldatu» izana salatu du. «Garrantzitsua da ohartaraztea kutsadura-pilaketa horiek eragina dutela URAk akuiferoak kontaminatzeko arrisku handiko

eremu gisa izendatutako tokian», azaldu dute GUK taldeko kideek.

Hori dela eta, URAk emandako baimen horretan ustezko «irregularitasun» bat jazo dela uste dute GUK taldeko zinegotziek, eta ez zutela kontuan hartu jabari publiko hidraulikoko erregelamenduaren azken aldaketa eta baimena sinatu baino hilabete batzuk lehenago indarrean zegoen lurralde-plan autonomikoa. ◀

Hainbat ordenantza fiskal moldatzea onartu du Udalak

Hurrengo ordenantza fiskalen aldataketak 2016rako behin-behinean onestea erabaki zuen 2015eko azkenengo osoko bilkuran Getxoko Udalak: udaleko herri-jabaria atzemateagatik Tasa, Hirigintza Zerbitzuengatik eta obra-lizentziagatik tasa; eta administrazio-agiriak luzatzeagatik Tasa.

Era berean, Udalak espazio publiko okupazioa erregulatzearen behin-behineko ordenantza onartu zuen abenduan, ostalaritza eta merkataritzari lotutakoak. Hala, gaur egun terrazak eta barrak instalatzeko indarrean dagoen ordenantza ordezkatuko du. Neurriak EAJ eta PSE-EEren babes jaso zuen. GUK-k kontra bozkatu zuen, eta PP, EH Bildu eta Ciudadanos abstenitu egin ziren. GUKen arabera, prozesua «desleiala» izan da. Azaldu dutenez, baimenak eta lizentziak ematerako orduan, auzokideen parte-hartzea baimentzea eskatu zioten EAJri, eta hasierako oniritzia eman ostean, proposamena zirriborrotik kendu dutela salatu dute GUKekoek. ◀

Erandio

Ikastaro-eskaintza zabala dute aukeran gazte erandioztarrek

Abendura bitartean 50 bat ikastaro eta ekimen antolatu ditu Erandioko Udal Gazteria Sailak. Tailer gehienetan, 15 eta 35 urte bitarteko neska-mutilek parte har dezakete.



Sorospen ikastaroan izena emateko, 150 eurokoa da preziorik merkeena. MR. THEKLAN

Daborduko gazte erandioztarrek izena eman dezakete 49 ikastaro, tailer eta ekimenetan parte hartzeko. Inskripzioagaz batera, 3 eta 250 euro bitartean ordaindu beharko dituzte, ikastaroaren arabera. Izen-ematea ixtear dituzten saioak honakoak dira: pilates eta zumba, hilaren 29an; eta inteligentzia emozionalaren tailerra, mintza-praktika ingelesez, eta ur-sorospena, otsailaren 5ean. Azken ikastaro hori egin ahal izateko, interesdunek aurretik lehenengo sorospenen diploma indarrean izan eta proba fisikoa egin beharko dute: 200 metro igeri egin lau minutu erabiliz gehienez, eta 25 metro urpean igeri egin. Klaseak otsailaren 16tik martxoaren 20ra izango dira; martitzen eta barikuetan teorikoak, eta zapatuetan, berriz, praktikoak. ◀

info+: 946025891 / gazteinfo@erandioko-udala.net

Udal Liburutegia aldizkari zaharrak banatzen dabil



© ERANDIOKO UDALA

Erandioko udal liburutegiak iazko aldizkariak auzotarren esku uzten dabil, ohi legez. Liburuzainak azaldu duenez, interesatuak bertatik pasa eta gustukoak aukeratu, besterik ez du egin behar iazko aldizkariak lortzeko. Udal liburutegia Altzagako Jesus Aranburu kaleko 6. zenbakian dago. Bitartean, literatura-zentroak *Neguko Gida* dauka irakurgai Altzagan eta Astrabuduan. Gidan, liburuzainek gomendatutako 60 libururen erreferentziak topa daitezke. Denak daude udal liburutegian, eskura. ◀

Alderdi politikoak bananduta, Kalezulo gaztetxearen aferan

Otsailaren 15ean izango da Oier Torre eta Imanol Eguskiza gazte erandioztarren epaiketa, Kalezulo gaztetxea dela-eta. Atzeratu den auziaz, desadostasun argiak dituzte Erandioko indar politikoek. Ganemos Erandio-k eta EH Bilduk gazteekiko elkartasuna erakutsi eta «gaztetxeak egin duen lanari eta kultura-proiektuari esker ona» agertu diote. Era berean, Udalari «gazteek eurek autokudeatutako proiektu parte-hartzaile denei errespetua eskatu diote». EAJ, PSE-EE eta PP ez daude ados.

EAJren ikuspegia

Jeltzaleak «gazte aisialdi arduratsu

eta osasungarriaren alde» agertu dira, eta gaztetxeagaz «lan egin, adostu eta errazteko» prest agertu dira. Gazteria zinegotziak Lonjagune programaren berri eman zien gazteei. Halere, aisialdi-eskaintzak «eskubide eta betebeharren menpe» egon behar duela uste dute, eta Kalezulok «lizentziarik ez» duela eta segurtasun- eta insonorizazio-baldintzak ez dituela betetzen diote. Gogoratu dutenez, lokalak «hainbat auzokideren salaketak» jaso ditu –azkena, Sonora diskotekaren enpresak egina–, eta Udalean zein Arartekoan espediente bana irekita dauka. Auziak udal ikerketagaz «loturirik ez» duela adierazi dute. ◀

Kirol-zentroak birbataiatuko dituzte herritarrek eta Udalak

Udalerriko kirol-instalazioei izen ofiziala ipintzeko egitasmoa abiatu du Erandioko Udalak. Ekimen hori herritarren partaidetza-prozesu batez egin gura du Udal Gobernuak. Hortaz, edozein pertsonak aukera izango du nahi beste proposamen egiteko, honako instalazioen izena finkatzeko: Astrabuduko eta Arteagako futbol-zeleaiak, Altzagako eta Astrabuduko kiroldegia, eta Lutxanako arraun-pabaloia. Horretarako, posta elektronikoz zein Erandioko Udalak Facebook-en duen kontuan egin daitezke iradokizunak, beti ere otsailaren 5a baino lehen. Jasotako proposamenak dagoen udal batzordera bideratuko di-



© ERANDIOKO UDALA

tuzte: Osasun Publikoa, Kontsumoa, Berdintasuna, Emakumea eta Kirolak Informazio Batzordera, alegia. Bertan erabakiko dute proposamenik egokiena, kirol-instalazio bakoitzarentzat. ◀

proposamenak: Facebook.com/erandiokoudala
partaidetza@erandioko-udala.net



Saltsan

AMAIA ARRIAGA LEJARRAGA
Herri-langilea

Erandion, etxe-kaleratzerik ez

Alderdi ia guztiek bat eginda, PP izan ezik, Erandio etxe-kaleratzerik gabeko herri izendatzekotan dira urtarrileko udal plenoan, ETXE-KALERATZEAK STOP ekimenarekin bat eginda. Poztu nau, bai, gure herrian kaleratzerik ez onartze horrek, eta Kalezulo gaztetxearentzat ere aplikagarri izan behar luke. Eraikin abandonatu bat okupatu, txukundu eta lan pilo bat eginez, bizitasuna eman diote guneari eta herriari. Espazioen beharra nabarmentzeaz gain, euren buruaren jabe direla eta autogestionatzeko gai direla erakutsi dute gazteek. Orain, kaleratzeari stop esan, eta gune hori interes publikokotzat hartzea litzateke bidea. ◀

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK
ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK
Tel. 94 430 52 43 / 607 952 977-6
regaraizar@gmail.com - www.garaizar.biz
Illeta kalea 1. ALGORTA

txakoli
motaTx
txakolina
leiala Unbe enpresia 34 (Alaranda Parke) Gakierri Erandio
Tel. 94 467 00 07 - www.txakolimotagane.com

LUBERRI
Basolanak S.L.
LOREZAINZA
-Soropila ezartzea,
zaintzea eta mantentzea
-Inausketak
-Barrukaldeak lorategi bihurtzea
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua 812 Lokala (ERANDIO)
629 41 18 38 - 94 467 17 13
luberrri@euskalnet.net
www.luberrri.biz

Leioa

Perituek «umiliatu» egin zutela salatu du Gazteluetako mutilak

Auzi-azterketak egin zizkieten hainbat adituen «tratua ez zen egokia izan», Leticia de la Hoz abokatuak dioenez. Epaiketa egongo den ala ez erabaki behar dute oraindino.



Gaztelueta ikastetxean, mutilaren irakasleetako bat izan zen ustezko erasotzailea.

Gaztelueta auziko aurreko izapideak amaitutzat jo dituzte hainbat iturrik, «sexu-abusu» salaketa aurkeztu zuen ikasle ohia-ri urtarrilaren 19an egin zioten azterketaren ostean. Hala ere, Leticia de la Hoz mutilaren abokatuak zehaztu duenez, auzia daroan Getxoko epaitetikiko magistratuak iragarri behar du perituek probak egiten amaitu duten ala ez; ondoren, erabaki beharko du ustezko erasotzailea, ikastetxe erlijio-soko irakasle ohia, juzgatuko duen. Mutilak 12 urte zituen izan omen ziren gertaerak; gaur egun, 19 urte dauka. Hasieran aipatutako azterketa horietan, gazteak «tratu umiliagarria» jasan zuela salatu du De la Hozek.

Hiru egunez luzatu zen azterketen atal psiko-soziala. Lehenengo egunean, hainbat psikologok egin zituzten analisiak; 09:30etik 13:30era luzatu zen saioa. Bigarren eta hirugarren egunetan, oster, auzi-mediku bik egin zituzten probak. Abokatuak berak nabarmendu du denak emakumeak zirela. De la Hozen arabera, «azken saio bi horietan, tratua ez zela

egokia izan sentitu du nire bezeroak, bai erantzun behar izan dituen galderengatik, bai profesionalen jarreragatik. Errespetu falta izugarria izan da».

Lekukotzak

Adituen proben aurretik, hainbat lagun joan behar izan dira Getxoko Justizia Jauregira, epailearen aurrean deklaratzera. 2015eko uztailaren 29an, salaketa aurkeztu zuen gaztea eta ustezko erasotzailea egon ziren magistratuaren aurrean. Urriaren 30ean, berriz, epaileak lekukotza hartu zien noizbait gaztea artatu duten lau medikuri, ustezko delituak jazo ziren urteetan (2008 eta 2011 artean) Gazteluetako zuzendaria zenari eta ikasle berak sufritu zuen bullying-azua ikertu zuen Hezkuntza Saileko inspektoreari. Azkenik, azaroaren 11n, ikasle ohiaren gurasoak, defentsaren peritu bat, mutilari eskola eman zioten irakasle bi eta Imanol Goyarrola Gazteluetako gaur egungo zuzendaria (usteazko gertaeren unean, zuzendariordea eta gaztearen irakaslea zen) hartu zituen magistratuak. ◀

Aurre-matrikulazioko izapideak erraztu gura dizkie gurasoei Udalak

Otsailaren 5era arte izango da ikastetxeetako 2016-2017 ikasturterako aurre-matrikulazioko garaia; sasoi horretan gurasoek egin behar dituzten gestioak errazteko asmoz, Udalak errolda-agiriak bidali dizkie 2 eta 3 urteko ume leioaztarrei; denera 649 sendiri. Ekintza horregaz, gurasoei erraztasunak eman gura dizkiete agintari leioaztarrek. «Urtero, hainbat gurasok bulego-orduetan etorri behar dute udaletxera agiri hori eskuratzeko. Gestioa erraztea du helburu ekintza horrek», azaldu dutenez. Bestalde, Udalaren Euskara Zerbitzuak *D bitamina* izeneko kanpainaren bidalketa ere egiten hasi da. ◀

Euskararen erabilerari buruz hausnartuko du Herrigunek

Otsailaren 20an eta 21ean, euskararen eta bere erabileraren inguruan ikertzeko eta berba egiteko komunitate-ekintza egingo du Herrigune egitasmoak. «Euskaraz edota euskaragaz elkarbizitzeko erronkari denon artean heldu gura diogu gune ireki honetan. Horregatik gura dugu zu zeu etortzea; garrantzitsua da sentsibilitate ezberdineko lagunak elkartzea», azaldu dute antolatzaileek. Horrenbestez, iazko gune irekian gogoeta «majoa» egin eta gero, oraingoan ekintzarako proposamenei heldu eta horiek bideratzea izango da ekimen honen helburua.

Aipatutako zapatuan, otsailak 20, Ondiztorre eraikinean elkartuko dira

eztabaida-saioa egiteko asmoz. Dimekan, oster, karpa ipiniko dute Boulevarden, komunitate-ekintzara bideratutako bilgune-irekia egiteko. Jarduerak elebidunak izango dira.

Herriguneko arduradunek adierazi dutenez, alde zaurretik izena eman beharra dago, Eventbrite Internet webgunearen bitartez; azken eguna otsailaren 18a izango da. Bestalde, egun honetan, urtarrilak 28, euskararen erabilerari buruzko gune irekiaren aurkezpen publikoa egingo dute; hitzordua 19:00etatik 19:30era ipini dute Laboragunea (Iturriondo, 10; 2. esku-ma) izeneko lekuan. ◀

info+: herrigune.org



Egitaraua

Urtarrilak 28, eguna

19:00-19:30 Euskararen erabileraren gaineko gune irekiaren aurkezpena, Laboragunea (Iturriondo, 10-2. eskuina).

Otsailak 20, zapatua

11:00-18:00 Ekintzarako gogoeta eta eztabaida, Ondiztorre eraikinean.

Otsailak 21, domeka

11:00-14:00 Komunitate-ekintzara bideratutako bilgune irekia, Boulevarden ipiniko duten karpan.

Bazkide eta HIRUKA lagunak, ADI!
21. orrian mezu
garrantzitsua dugu
zuentzat...

hiruka Uribe Kostako astekaria

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak
guri izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!
Algortako Etorbidea 78 - Tf. 94 491 27 34

PINTXO POTE
OSTEGUNETAN
12:00 ETATIK
15:00ak ARTE
Portu Zaharra Bar

TABERNA Unai JATETXEA
ALGORTAKO ETORBIDEA, 96
48991 GETXO (BIZKAIA)
TELF. 944661661
TABERNAUNAI@HOTMAIL.COM

Sopela

Aurrekontuak, onartuta

2016ko aurrekontuak onartu ziren abenduko ohiko Udalbatzan, EAJ, PSE eta DB-Turen arteko akordioari esker.

Sopelak badauzka aurrekontuak 2016. urterako. Izan ere, EAJk eta PSEk osatutako udal-gobernuak eta Denok Batera alderdiak akordioa erdietsi, eta abenduko ohiko Udalbatzan onartu zituzten urte honetarako kontuak: 13.952.558,26 euro. Hala, aurten, diru-sarrerak %5,21 igotzea aurreikusten du Udalak.

Bertatik jakinarazi dutenez, era berean, hainbat partidatarako igoerak zehaztu dituzte: ekonomiaren eta lanaren sustapenerako, %45,29ko igoera; gazteria, aisia eta kirol alorrean ere, %26,18ko igoera ezarri dute; eta



Sopelako udaletxea.

turismoan, %34,76ko igoera. Gainera, gizarte-ekintzarako, %8,23ko igoera jarri dute, eta laguntza-sorta berriak sortuko dituzte: txirotasun energetikoa jasaten duten familiei laguntzeko, eskola-materiala erosteko, eta udal-euskaltegia matrikulatzeko.

Aurrekontu berrietan, bestalde, gardentasunari begirako diru-partidak izango dira, eta partaidetzarako web-orri bat sortzea ere aurreikusten dute, baita irisgarritasuna hobetzeko neurriak hartzea ere. ◀

info+: www.hiruka.eus

La duda filma, Genero-ikuspegiko zinema-zikloan

Urte berriak asmo berriak ei dakartza, baina aurrekoakaz ere jarraitzerik badago. Horregatik, Itzartu elkarteak Genero-ikuspegiko zinema-zikloaren denboraldi berriari ekin dio. Gaur bertan, urtarrilaren 28an, *La duda* filma emango dute, ohi den legez, Kurtzio kultur etxean eta 18:00etatik aurrera. John Patrick Shanleyk zuzendu zuen filma 2008an, eta Meryl Streep, Philip Seymour Hoffman, Amy Adams eta Viola Davis dira protagonistak. Emanaldiaren ostean berbaldia egin ohi dute. Itzartuk dioenez, horixe da saioaren tarterik interesgarriena, hain zuzen ere, filmaren edukia aletzen dutenean, betiere genero-ikuspegitik. Horregatik, ikusleak solasaldian geratu eta parte hartzera gonbidatu ditu. Otsailean beste pelikula bi ikusi ahal izango dira ziklo horren barruan: *Big eyes* eta *Una canción para Marion*. ◀

info+: www.sopela.eus

Berango

Aratusteak, pelikuletan oinarrituta, otsailaren 6an eta 13an

Berangoztarrek kaleak hartuko dituzte otsailaren 6an, zapatuan. Arrastian, pelikula ezagunetako pertsonaiez mozorrotuta kalejira egingo dute Berangoeta kultur etxetik abiatuta, 18:00etatik aurrera. Ondoren, txokolate-jana eta disko-festa izango dituzte. Hilaren 13an, berriz, etxeko txikienek Inauterietako jaia izango dute aukeran Berango-Merana eskolako gimnasioan, 21:00etatik aurrera; musika, jatekoak eta simulagailuak egongo dira, besteak beste. Horretarako, aldeztu aurretik izena eman beharra dago, kultur etxean, otsailaren 5a baino lehenago. ◀

Lemoiz

Inauteri-jaia antolatu dute otsailaren 13rako Armintzako frontoian

Lemoizko Udalak eta bertoko ostalariek Inauteri-jaia antolatu dute otsailaren 13rako, zapatua. Festak goizean hasi eta iluntzera arte iraungo duela jakinarazi dute antolatzaileek. Hala, Armintzako frontoira bertarazten diren guztiek gozatu ahal izango dute disko-festagaz sortuko den giro «dibertigarriagaz», 19:00etatik aurrera. Halaber, mozorro-lehiaketa egingo dute, eta parte hartu gura duten guztiek udalerriko tabernetatik pasatu beharko dute epaileek mozorroa puntuatu ahal izateko. ◀

info+: www.lemoiz.eus

Barrika

Otsailaren 3an, San Blas eguna ospatuko dute barrikoztarrek

Urtero legez, otsailaren 3an, eguaztena, San Blas jaieguna tradizionala ospatuko dute Barrikan. Hori horrela, egitarau polita prestatu dute egun horretarako: goizean, ohiko meza nagusia izango da Andra Mari elizan (Elexalde), 11:00etan. Horren ostean, hamaiketa-koaren txanda izango da, trikiti-doinuak lagun. Arrastian, berriz, trikiti, karamelu eta pastelen txanda helduko da, Elorduy Egoitzan, 17:30etik aurrera. Halaber, egun osoan San Blas hariak eta erroskillak erosteko aukera egongo da elizarako bidean egongo diren postutxoetan. Izan ere, egun horretan ohi-



koa da elizetara hurbiltzea bedeinkatutako opilak eta koloretako kordelak erostera. Ohituen arabera, kordelek eztarria babesten dute neguko hotzetik eta katarro edo hotzeritik. ◀

COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

Irunbat
galp
C/ Loloia Ander Deuna, 74

Teléfono: 946 764 625
Fax: 946 762 582
Web: www.irunbat.net

MARTITZEN ETA ZAPATUETAN ESKAINTZA BEREZIA

aiak
GOSARIAK PINTXOAK
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!

Bentatu 2. Tlf. 94 676 03 28 SOPELA

Haur Hezkuntzatik Batxilergora

Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus

ander deuna
I K A S T O L A

Plentzia



Doako hiru tailer martxan ipini gura dituzte Danontzat gaztetxean, otsailetik aurrera.

Bertsoak, tai-xia eta txalaparta

U rte berriko ajea gainditu ostean, tailer berriak antolatu eta martxan ipiniko dituzte otsailetik aurrera Danontzat gaztetxeko neska-mutilek. Hala, txalaparta, bertso-eskola eta tai-xi ikastaroak egongo dira aukeran.

Txalaparta tailerra barikuetan izango da, 18:00etatik 19:30era. Bertsoan trebatzeko eskolak ere egingo dituzte, domekara, 19:00etan. Tai-xi eskolen ordutegia eta maiztasuna datozen egunetan ere zehaztuko dituztela iragarri dute gazteek, «jende nahikoak par-

te hartu nahi izanez gero eta irakaslea ados badago». Tai-xia arte martzial txinatarrak da, barne-energia garatzeko oinarritzen dena; gorputza, adimena eta espiritua batera lantzen ditu. Arte martzial hori praktikatzeko ona da edozein adinetako pertsonarentzat, eta gaur egun, milioika pertsonak praktikatzeko mundu osoan. Ikastaro horietako batean parte hartu gura dutenek aldeztu aurretik izena eman beharko dute, leku-kopurua mugatua izango baita. Ikastaroak doakoak izango dira. ◀

harremanetarako: danontzatgaztetxea@gmail.com

Brigadarako 3 peoi kontratatuko dituzte

U dalak, Uribe Kostako Behargin-tzagaz elkarlanean, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen Programa jarriko du martxan. Hala, Udalak udal lanen brigadan behar egiteko 3 peoi kontratatuko ditu, 3 hilabetez. Ekimen hori zuzenduta dago udalerrian langabezia dauden gizon-emakumei. Hautaketa-prozesuan sartu ahal izateko, Lanbiden izena emanda izatea beharrezkoa izango da, Obra Publikoetako Peoi Orokorra profilean, hain zuzen ere. Lanbideko Curriculumean aldaketarik egin behar izanez gero, Behargintzan edo Lanbideko edozein bulegotan egin daiteke urtarilaren 29a arte (egun hori barne). ◀

Plentziako eskolarako matrikulazioa, zabalik

O tsailaren 5era arte egongo da zabalik Plentziako HLHI ikastetxean 2016-2017 ikasturteko matrikula egiteko epea. Izen-emateak herri ikastetxean bertan egin beharrekoak dira. Eskolak doako garraioa eskainiko die ikastetxetik kilometro bi baino urrunago bizi diren plentziarrei zein barrikotzarrei. Era berean, nabarmendu dutenez, eskola-ko jantokian bertan egindako bazkaria eskaintzen dute, neska-mutilen nutrizioa zaindu ahal izateko. Halaber, eskolaz kanpoko hainbat ekintza eskaintzen dituzte: liburutegia eta mediateka eguerdian; eta saskibaloia edo eskubaloia, besteak beste. ◀

info +: www.plentziaeskola.net
harremanetarako: info@plentziaeskola.net

ArgIHizkiak Goñi Portalen, otsailaren 1etik 14ra bitartean

A rgazkietan oinarritutako testu laburren IV. lehiaketaren erakusketak hartuko du Goñi Portalek, otsailaren 1etik 14ra. Leioan abiatu zen ArgIHizkiak erakusketak ibiltaria, eta orain Plentziara helduko da. Lehiaketaren 10 argazkiak eta horietan oinarritutako euskarazko 20 testu labur onenak baztertu dituzte erakusketak. Eskualdetik 166

testu jaso ziren, eta 138 parte-hartzaile uribekostarrak izan ziren. Plentziako Uribe Kosta BHiko 100 ikasleek 108 testu helarazi zituzten, eta horietako hainbat erakusketan agertzeko aukeratu zituen epaimahaiak; gainera, institutuan bertan barne lehiaketa bat antolatu zuten. Erakusketaren ordutegia, haxe: aste-gunetan, 11:00-13:00, eta 16:30-20:00. ◀

Urduliz

Udaletara, informazioaren eske

Uribe Ospitalea
Plataforma kezkatuta dago Urdulizko osasun-zentroak izango duen eraginagaz.

D atozten egun eta asteotan, Uribe Ospitalea Plataformak (UOP) eskualdeko eta inguruko hainbat udaletara joko du, Alfredo Espinosa Urdulizko ospitaleak herri horietan izango duen eraginagaz kezkatuta. Uribe Kostan, eskaerak aurkeztuko dituzte udalerrri hauetan:

Barrika, Berango, Getxo, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urduliz.

Besteak beste, Urduliz Rural-a eta Sopela SUSAN (Sopela-Urdulizko Sahiesbidea Noizko) taldeen babesa dauka herri-ekimenak. Horiez gainera, ospitaleak barne hartuko dituen hainbat herritako auzotarrek ere osatzen dute UOP.

Udalei igorriko dieten idazkian aitoritu duten legez, «kezkatuta» daude osasun-zentroak izango duen eraginagaz, «aurreikusitako ez diren arazoak» ekarriko dituelakoan. Horregatik,

udalei honako bost punturen gaineko informazioa eskatu dietek: garraio publikoan sor daitezkeen autobus-linea berriak eta metro zein autobus maiztasunak hobetzeko neurriak; eragin ekonomiko eta soziala zein balizko ingurumen-kaletak; trafikoaren, aparkalekuen eta sor daitezkeen «segurtasun eza»-ren kudeaketa; errepideen eta horien mantentze-lanen kostea Al- dundiak hartzea; eta anbulantziak.

Gaiei buruz eginda dauden azterketa-txostenak eskura ipintzea ere gura du plataformak. Halakorik egon-

go ez balitz, txosten independentea egitea eskatu du. Informazioaz gainera, prozesu parte-hartzaile bat bideratzea aldarrikatu dute, «ahal den heinean, herritarrokaz erabakiak hartu, eta ideiak eta ekarpenak jasotzeko».

ELAren salaketa

Barikuan, ELA sindikatuko 60 bat delegatuk salatu egin zuten Urdulizko osasun-zentroaren «garbiketa» eta mantentze-zerbitzuak esku pribatuetan utzi» gura dituztela. Osakidetza ez du horrelakorik argitu. ◀

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.saiaszgetaria.com



30. Urteurrena
XURRUT
Pasa - Bar - Musika Luzean
Bertan egindako pizza & pasta
Udan Jazzaldia terrazan
946 771 389 GORLIZ xurrut.com

Plentzia eta Gorliz

Euskaldunen sarea handitzeko, agenda ipiniko dute martxan

Egitasmoaren eta horren irudi nagusirako logo-lehiaketa aurkeztuko dute urtarrilaren 29an, Danontzat gaztetxean.

Gorlizko eta Plentziako udalek askotan antolatu izan dituzte ekintzak elkarren artean, herri bien arteko hartu-emaña eta lotura handia delako. Halaber, udalerri bietako egoera soziolinguistikoa ere oso antzekoa da, eta ugari dira herri batetik bestera doazen herriarrak. Bada, aurtan Euskara Agenda bateratu bat abian jartzea adostu dute udal biek, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko euskara zerbitzuaren bitartez. Azaldu dutenez, agenda komun horren helburua da Gorlizko eta Plentziako herritar euskaldunak «elkartzea eta euskaldunon sare hori ugaltzea»; «baita euskararen erabilaren normalizazioa lortzea ere, esparru guztietan».

Horretarako, mota askotariko ekintzak hartuko dituen urte osoko agen-



Aurkezpena urtarrilaren 29an izango da, barikuan, Plentziako Danontzat gaztetxean. EUSKAL EDGE

da prestatuko dute laster. Jakinarazi dutenaren arabera, agenda horrek lau zutabe garrantzitsu izango ditu: soziolinguistika edo hizkuntza bera; literatura edo sorkuntza; kultura; eta historia edo ondarea. Bestalde, Euskara Agenda horren irudi nagusia izango den irudia edo logoa aukeratzeko

lehiaketa antolatuko dute. «Logo edo irudi horrek bi herrien arteko lotura eta euskararekiko lotura ere islatu behar du», azaldu dute antolatzaileek.

Aurkezpen-ekitaldia, barikuan

Logo edo irudi lehiaketaren, Euskara Agenda beraren eta lehendabiziko

ekintzaren aurkezpena egingo dute hilaren 29an, Plentziako Danontzat gaztetxean. Hitzordua arrastiko 07:00etan ipini dute, eta horren ostean, Rafa Rueda eta Gotzon Barandiaranen ikuskizuna egongo da: *Gure imaginarioa kantagintzaren bitartez eraikitzen. Euskal Herriaren Historia kantetan.* ◀

Uribe Kosta

Eskualdeko emakumeak ahalduntzeko eskola

Urtariletik maiatzera bitartean izango dira ikastaroak, herrietan eta doan. Aldez aurretik izena ematea beharrezkoa da.

Eskualdeko emakumeak ahalduntzeko eskola martxan ipini du, aurtan ere, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak. Hori horrela, hainbat ikastaro antolatu dituzte datoren hila beteetarako, herri denetan.

Plentzian, «Idazkuntza sortzailea ahalduntzeko tresna gisa» izeneko ikastaroa egingo dute, urtarrilaren 28tik hasita, eguenetan, otsailaren 18ra arte, 18:00etatik 20:00etara; izen-ematea, Goñi Portalen.

Gorlizan, berriz, «Zinema, genero-ikuspegiarekin» izenekoan, zinematik emakumei zelaz eragiten dien aztertuko dute, martxoaren 2tik apirilaren 6ra bitartean, 18:30etik 21:00etara; kultur etxean eman beharko da izena.

Martxoaren 14an, 21ean eta apirilaren 11n, osteran, «Garapen pertsonala eta lidergoa» izeneko ikastaroa eskainiko dute Urdulizen, 17:00etatik 19:00etara; izen-ematea Inola Emaku-

me Elkartearen. Horretan, emakumeek erabakiak hartzeko orduan parte hartzea eta lidergo jardueretan aritzea genero-berdintasunerako, tolerantziarako eta bereizkeriarik ezerako aurrerapena dela ikusiko dute. Sopelako emakumeek, gainera, sororitatea (ahizpata-suna edo) landuko dute, apirilaren 11tik maiatzaren 2ra arteko astelehenetan, 17:00etatik 19:00etara, «Gure sororitatea lantzen» tailerragaz. Itzartu Emakume Taldeagaz harremanetan jarri beharra dago izena emateko.

Berangon, Lemoizen eta Barrikan, berriz, osasuna, garapen pertsonala eta generoari lotutako ikastaroak egingo dituzte. Berangon, «Nola bizi dugun emakumeok gure sexualitatea» izenburupeko tailerra egingo dute, otsailaren 4tik 25era bitarteko eguen denetan. Emakume Elkartearen da izen-ematea. Egun horietan, besteak beste, auto-bereizketa afektibo sexuala jasoko dute

parte-hartzaileek, 18:00etatik 20:00etara. Lemoizen, «Emakumea izan eta era positiboan zahartu» tailerra izango dute, otsailaren 29tik martxoaren 21era arteko astelehenetan, 17:00etatik 19:00etara. Azkenik, Barrikan «Gure

emakume sendalariak eta euren sendabideak» izeneko ikastaroa egingo dute, apirilaren 6, 13, 20 eta 27an, 16:30etik 18:30era. Ikastaro guztiak gaztelaniaz izango dira, eta doan. ◀

info+: www.uribekosta.org

Gipuzkoa Kalea, 2
48610 URDULIZ


94 657 15 24
685 764 662

info@kumarazentroa.com

Kumara
zentroa

www.kumarazentroa.com

TERAPIA ALTERNATIBOAK ETA ESTETIKA



GETXO Edmond Rostand-ek idatzitako *Cyrano de Bergerac* helduentzako drama moldatu dute, umeentzat. © GETXOKO KULTUR ETXEA

New Orleansko Cyranohaurrentzat, Areetan

Vaiven taldeak *New Orleansko Cyranon* antzezlan eskainiko du domekan, urtarrilak 31, Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Emanaldia 18:00etan izango da, euskaraz; sarreak 5 euroan daude salgai. 6 urtetik gorako neska-mutlei begirako obra da, Getxoko Kultur Etxeko ardura dunek aurreratu dutenez. Edmond Rostandek idatzitako *Cyrano de Bergerac* helduei zuzendutako drama abiapuntu hartuta, Olga Margallok eta Antonio Muñoz de Mesak idatzitako umei moldatutako ikuskizun hori, XX. mendeko New Orleansko jazz-eskola batean kokatuz. Jakina, gatazkak xumeak dira, adin horretako ikusleentzako ulergarriak, baina bertsoari eta jatorrizko lanaren espirituari eutsi diete. Vaivenen bertsiotaldeko kideek.◀

URDULIZ

Barikuan egingo dute Mihiluze lehiaketaren sailkapen-ekitaldia

Hainbat ikastetxetako LHko 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako 44 bikoitek parte hartuko dute barikuan, hilak 29, Uribe Kostako Mihiluze lehiaketaren sailkapen-ekitaldian. Saioa 18:00etan izango da, Urdulizko kultur etxean. Bikoite horietatik lau baino ez dira igaroko otsailaren 5ean, barikua, jokatuko den finalera; 18:00etan izango da, Sopelako Kurtzio kultur etxean. Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatutako, Euskaltzaleen Topaguneari gaz batera, ETBren saioan oinarritutako lehiaketa, nerabeen artean eskualdeko kultur ondarea ezagutarazteko. ▶



2016/01/28 - 18:00

La duda filma Kurtzio kultur etxea | Sopela

Genero-ikuspegiko zinema. Itzartu emakumeen elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz. Doan.

2016/01/28 - 19:00

Paperezko animaliak egiteko tailerra Kultur etxea | Gortiz

2016/01/30 - 18:00

Star Wars. El despertar de la fuerza filma Kultur etxea | Urduliz

7 urtetik gorako ikusleentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

2016/01/30 - 19:00

Habra kadabra? umorezko bakarrizketak, musikagaz




© BARRIKAKO UDALA

BARRIKA San Blas eguna, otsailaren 3an

Ohitura den legez, otsailaren 3an, eguaztena, San Blas eguna ospatuko dute barrikoztarrek. Horrenbestez, goizez, Andra Mari elizan batuko dira, 11:00etan; meza nagusiaren ostean, hamaiketako egingo dute, trikitilarien doinuez lagunduta. Arrastian, Elorduy egoitzan jarraituko du ospakizunak: 17:30etik aurrera, trikitilariak eta karameluen zein pastelaren banaketa egongo dira. Otsailaren 3koa III. mendeko San Blas martiri kristauren omenezko jai tradizional eta erlijiosoa da, herriko bihurtua. ▶

hiruka

Uribe Kostako astekaria



Gehigarri berezia

2016ko
urtarrilaren 28tik
otsailaren 5era arte

Matrrikulazio garaia 2016-17 ikasturtea



*Bada garaia
Lehen eta Bigarren
Hezkuntzan izena emateko!*

2016ko urtarrilaren 25etik otsailaren 5era izen-ematea egiteko aukera egongo da, online zein ikastetxeetan bertan, eskualdeko zentro publiko zein pribatuetan.



Psikologia - Psikiatria - Logopedia - Pedagogia - Pedriatia - Psikomotrizitatea
Arreta eta estimulazio goiztiarra - Zentzumenen estimulazioa - Musikoterapia
Terapeuta okupazionala - Fisioterapia - Osteopatia - Ikus-berrezitzea
Optometrista - Berard entzun-berrezitzea - Gizarte-abileziak tailerrak
Gurasoentzako tailerrak - Elektroestimulazio makina

944 801 082 Telefonoa eta fax-a
info@centrozubikoapsicologos.com
www.centrozubikoapsicologos.com

Zubiko Enparantza 1,
bulegoak 1-8 eta 1A baxua
48930 Areeta, Getxo - Bizkaia

Sendi

Getxo Jaurlaritzaren proiektua

Un proyecto para impulsar
el estudio en las familias de Getxo

egizu

Getxo

Basque

Basque

Basque

DOAN
otsailak 23
asteartea
17:30-19:30

HAZIBIDEAK

**Hitzaldia guraso eta hezitzaileentzat
Generoa eta hezkuntza**

Noiz: otsailak 23, asteartea, 17:30-19:30

Non: Zabala ikastetxeko liburutegian
(Zabala 3, Algorta)

Norentzat: guraso eta hezitzaile euskaldunentzat

Hautzaindegi-zerbitzua: doan (aurretik jakinarazi)

Izena eman: 685 73 29 63 (Lander) sendigetxo@yahoo.com



Amelia Barquin Lopez
Biologiako doktorea irakaslea da
IUTHEZI ikastetxean (Mondragón)

SENDIren otsail eta martxoko tailerren informazioa www.egizu.eus-en



Helbidea:
Arene Azpi 15,
48990 Algorta
(Getxo)

Telefonoa:
94 430 54 78

Faxa:
94 430 54 77

E-posta:
ikastola@
sanikolas.com

Webgunea:
sanikolas.eus

San Nikolas Ikastola

San Nikolasen denok gara gu!

Guraso kooperatiba euskalduna, «D» ereduaren urte batetik 16 urte arteko ikasleentzat kalitatezko ikasketak eskaintzen dituen ikastola, beste kulturekiko zabaltasunaz, euskal kultura sustatuz.

San Nikolas Ikastola egitasmo zehatzei erantzuten dien hezkuntza proiektua da, etengabe gaurkotzen dagoen sistema pedagogikoa duena eta ikastolaren eguneroko kudeaketan langileak, gurasoak eta ikasleak integratzen dituen. Irakasleriaren etengabeko formakuntzak eta berrikuntza proiektuen etengabeko sustapenak Ikastolak ka-

litatearekiko eta garapenarekiko duen konpromisoa islatzen dute.

Estrategia eta balioak:

Bere eragin esparruan hezkuntza, gizarte eta euskal kulturaren erreferentzia izatea; hezkuntza eta kudeaketa proiektu sendoa izateagatik ezaguna; kalitatezko kudeaketa sistema duena; gaurko zein etorkizuneko guraso eta

ikasleen beharrian eta nahien ase-tzean oinarritzen dena. Hori guztia gizarte eragile ezberdinen konpromiso, inplikazio eta parte-hartzeaz, ikastolako langileria ere integratuz.

Instalazioak

Instalazioei dagokienez, ikastolak kalitatezko azpiegiturak eskaintzen ditu: patio eta jolastoki zabalak, hainbat kirol-gune, estali zein estali gabekoak, eta bi jantoki, hezkuntza maila bakoitzarentzako berea. Horrez gain, txiki-txiki gela, liburutegia, informatika-gelak, laborategia, psikomotrizitateko gela eta musika-gela dauzka.

D eredua

Adin-tartea

1-16 urte

Eskola-ordutegia

Haur Hezkuntza: 1-5 urte

07:00-18:30

* Hartzaindegiz-zerbitzua dago ikasturte osoan.

Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza:
09:00-16:30

Zerbitzuak

- Autobusa
- Bi jantoki; Hartzaindegia, eta Lehen eta Bigarren Hezkuntza
- Hartzaindegizko laborategia: 7:00tik 18:30era

Eskolaz kanpoko zerbitzuak

- Eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen dira: kirolak, ingelesa, musika, bertsolaritza, balleta...
- Kultur ekintzak: ikastolako jaia, Agate Deuna, Korrika, Euskararen Eguna...
- Oporretako campusak
- Familia eta ikasleei zuzenduriko orientabidea eskaintzen da.

Izena emateko jarraibideak

- Online: Eusko Jaurlaritzaren webgunearen bitartez: www.hezkuntza.net
- Idazkaritzara bertaratzu, 08:00-17:45 orduetartean





San Nikolas IKASTOLA

San Nikolasen denok gara gu!!!

Yes

BAI

Oui

Algorta

SAN NIKOLAS IKASTOLA (Arene azpi, 15)


Eragutu Gaitzazu!!!



ikastolan denok gara gu

IKASTOLA EREDUA

ikastolenikartea



Telefonoa: 944 305 478 • Faxa: 944 305 477 • www.sanikolas.eus • ikastola@sanikolas.com

Hire Ondoan pedagogia-zentroa

«Batera, ume eta gurasoakaz»

Ikaste-prozesuan zailtasunak dituzten umei zein horien gurasoei begirako aholku eta tratamenduak eskaintzen dituzte.



Hire Ondoan pedagogia-zentroko buru Iranzu Arroita-jaregik azaldu duenez, ikasteko zailtasunak eragin ditzaketen arrazoi nagusien artean daude dislexia, disgrafia, diskalkulia (dislexia modukoa baina matematika-arloan) edo arreta-gabezia. «Halakoak antzemateko aholkularitza eskaintzen diegu gurasoei, diagnosia egin, eta beharrezkoa bada, umeagaz batera landu. Konturatu gara gurasoakaz lantzean, aurrerapauso nabariak egiten direla; gurasoakaz egiten dugun lana oso garrantzitsua da, umeagaz egiten denaz gain». Norbanako-arreta zuzena eskaintzen du zentroak, euskaraz eta gaztelaniaz. 4-5 eta 12 urte bitartekoakaz lan egiten du, baina nagusiagoei ere lagundu die, «denetarik; 17 urtekoak ere bai, ikasteknikak-eta lantzen; baina, oro har, Lehen Hezkuntzakoakaz». La-

nabesen artean asko darabilte «IKT-ak (Informazio eta Komunikazio Teknologia), Internet... Metodologia berri batzuk, software berezi batzuk, matematika, irakurketa, idazkera edo sormena lantzeko. Umeak berehala sartzen dira; motibazioa lantzeko oso ondo daude». Halere, «beti» ez direla erabili behar dio Arroita-jaregik; bere aholkua: «umeak beti behar du heldu bat alboan; ez da komenigarria umea uztea ordenagailuagaz bera bakarrik». Arreta-gabeziaren gainean, arreta garatzeko teknikak ere lantzen dabilela jakinarazi du Hire Ondoaneko buruak, «kontzentrazioa lantzeko, arreta mantentzeko erlaxazio-riketak dira; emaitza benetan onak dituzte. Kontu berria da, nire ustez oso beharrezkoa; gaur egungo umeek behar dutelako; estimulu asko, lar, dituztelako; ariketa horiek oso interesgarriak dira oinak lurrean izateko». ◀

Didak Hamilton



Hizkuntza bat ondo ikastea lortzeko...



SARA MARTIN ARIÑO
Didak Hamiltoneko arduraduna

Marketin handia dago jendea animatzeko hizkuntzak erraz ikas ditzan. Metodologia edo ikerketa berezietan datzala diote. Goazen teoria horiek sinplifikatzera. Hizkuntzak ikastea ez baita «rocket science»; ez da horren zaila! Batzuek denbora gehiago beharko dute; zortedunagoek, gutxiago; baina, ez dago ez miraririk ez formula magikorik ere. Hizkuntza bat berarekin kontaktuan egonez ikasten da; ez dago beste sekreturik. Ama-hizkuntza ikasten dugun bezala. Nagusien kasuan, borondatearekin zuzenean dago lotuta. Norberak duen «ikasteko estiloa» kontuan hartu behar da; hobeto doakion metodologia jarraitzen badu, arinago ikasiko du. Eta, zenbat eta denbora gehiago hizkuntzarekin kontaktuan egon, hainbat arinago. Hizkuntza-eskolek ikasleei laguntzen diete, baina oso garrantzitsua da klasetik kanpo ere kontaktua bilatzea: bertsio originalean programak ikusi eta entzutea... Interneten, horretarako aukera asko dago. Umeen kasuan, batez ere, jatorrizkoaren doinua harrapa dezaten, premiazkoa da lehenengo sei urtean hizkuntzarekin harremanetan egotea. Ahoskera onak komunikazioa errazten du. Mundu global honetan, hizkuntzak ezinbestekoak dira. Lehiakorrek izateko maila polit bat behar dugu, ez bakarrik «lardaskatu». Berri ona zera da: hiru hizkuntza jakinda, hurrengoak oso erraz ikasten dira! Euskaldunok erraz daukagu lehenengo biek; hirugarrena ikastoletan irakasten/laguntzen digute. Maila polita izanez gero hiruretan, ahalegindu laugarrenarekin! Ikusiko duzu zein erraz sartzen den! Hizkuntzak beste pertsonekin komunikatzeko ikasten dira. Alde profesionalean edo pertsonalean; beti dira lagungarri. Eta burmuina fresko mantentzen ere laguntzen du. ◀

94 612 36 98
aldapa, 3 algorta
www.hireondoan.eus



Astelehenetik barikura
9:00-13:00 / 16:00-20:00

iranzu arroita-jaregi gutierrez
pedagogia lizentziadun

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 SOPELA
TF. 94 676 30 12 - info@didakhamilton.com



Helbidea:
Euzko gudariak 1,
48940 Leioa

Telefonoa:
94 463 99 06

Faxa:
94 463 98 92

E-posta:
c.mercedes@euskalnet.net

Webgunea:
mercedariasleioa.org



Mesedeetako Andra Mari

Balioetan heztea da gure oinarria

Mesedeetako Andra Mari hezkuntza-zentroa Leioako erdigunean bertan kokaturiko ikastetxea da. Itunpeko ikastetxe pribatua, elebiduna, euskaldun gizartean murgilduta, plurala eta balioetan hezitzailea.

Karitateko Mesedeetako sero-
rek sorturiko ikastetxea da
Mesedetako Andra Mari, non
ikasleria ekintzaren helburu
nagusitatzat jotzen duten, euren garape-
na esparru orotan bilatzen dutelarik.

Ikastetxearen antolakuntzak ho-
nakoak ziurtatzen ditu: batetik, par-
te-hartzearen sustapena, horretarako
hezkuntza-komunitateko kide guztiak

baloratu eta horien motibazioa bilatzen
da. Bestetik, irakasleriaren etengabeko
prestakuntza eta metodologia berritzaile-
leen aldeko apustua egiten da. Azkenik,
proiektua aurrera ateratzeko beharrez-
ko baliabideak egoki kudeatzen dira.

Estrategia eta balioak

Balioetan heztea da Hezkuntza Proiek-
tuaren oinarria, gizakiaren existentzia-

ri zentzua ematen dioten oinarritzko
galderei modu aske eta autonomoan
erantzuteko prozesuan ikasleria lagun-
tzea esan nahi duelarik.

Hezkuntza-komunitateko kideen
artearen eratzen diren harremanetan eta
eboluzio-prozesuetan dibertsitatea da-
karten heltze-etapa ezberdinak erres-
petatzen dira. Etengabeko harrera la-
gunkoia da ikastetxearen jarrera, eta
hizketa giroaren zein ulermenaren alde
egiten da. Aniztasuna, ikasteko aukera
bezala ulertuz, eta dibertsitateari es-
kainitako arreta, pertsona eta komuni-
tatearekiko konpromisotzat hartzen du
zentroak. ◀

B eredua

Adin-tartea

2-16 urte

Eskola-ordutegia

Haur Hezkuntza 1. Zikloa:

09:00-12:00 / 14:30-16:30
*Sarrera ordutegi malgua 7:30etik
10:00etara. Irteera ordutegi malgua
16:30etik 18:00etara.

Haur Hezkuntza 2. Zikloa eta Lehen Hezkuntza:

09:00-12:30 / 14:30-16:30

Bigarren Hezkuntza (DBH):

08:30-13:40 / 14:30-16:30
*Ostiralak: 08:30-14:00

Zerbitzuak

- Autobusa eta jantokia.
- Hartzaindegia.

Eskolaz kanpoko zerbitzuak

- Eskolaz kanpoko kultur jarduerak antolatzen dira eguerdi eta arratsaldeko ordutegian.
- Familia eta ikasleei zuzenduriko hezkuntza-orientabidea eskaintzen da.

Izena emateko jarraibideak

- **Online:** Euzko Jaurlaritzaren webgunearen bitartez: www.hezkuntza.net
- **Idazkaritzan:** 9:00-13:00 eta 14:30-17:00 ordutegian.



Mesedeetako Andra Mari Ikastetxea

Giza, teknologiko eta eleanitza 2 eta 16 urte formakuntza

Ingelesa 3 urtetik eta Frantsesa DBHn
Aniztasunarentzako arreta

Zerbitzuak: jantoki, autobusa, babes ordutegia HH eta LHn, eskolaz kanpoko ekintzak, SIEP,...

Deitu eta informatu zaitez
konpromezurik gabe

Tf. 94 463 99 06

Euzko Gudariak 1 – 48940 Leioa

c.mercedes@euskalnet.net
www.mercedariasleioa.org



Betiko ikastola

«Euskal Curriculumuma da gure proiektuaren ardatza»

Betiko Ikastolak D ereduan oinarritutako 16 urtera arteko hezkuntza eskaintzen du Leioan. Horrez gain, bestelako zerbitzuak ere eskaintzen ditu, hala nola jantoki propioa.

**Helbidea:**

Artatza 84,
48940 Leioa

Telefona:

94 464 23 64

E-posta:

info@
betikoikastola.net

Webgunea:

betikoikastola.eus



Koldo Tellitu Betiko Ikastolako presidentea da.

Aurre-matrikulazio garaia den honetan, Leioan kokatuta dagoen Betiko Ikastolako presidentea den Koldo Tellitugaz egin dugu berba, ikastetxearen nondik norakoak eta horrek eskaintzen duen guztia zuzenean eta lehen lerrotik azaltzeko: ikastolaren Hezkuntza proiektua, jantokia...

Betiko ikastolak Euskal Curriculumean oinarritutako Hezkuntza Proiektua du. Zertan datza martxan ipinitako egitasmo hori?

Bai, Hezkuntza euskalduna izanda gurea, Euskal Curriculumuma dugu gure Hezkuntza proiektuaren oinarri eta ardatz. Gure ikasleek derrigorrezko Hezkuntza amaitzerakoan euskal gizar-tean sortu edota egokitu diren kultur adierazpen nabarmenenak bereganatzea dugu helburu. Gainera euskaldun eleaniztunak sortu nahi ditugu, gaurkotuak, behar berriei egokituak eta komunikazio teknologietan trebatuak.

Ikasle buru askeak izatea dugu helburu, beren burua eta ingurua ezagutzeko eta bizitzan zehar izango dituzten erronka eta arazo guztiei irtenbide egokiak bilatzeko tresnak eta baliabideak emanaz. Bikaintasuna dugu xede, baina ikasle guztien hobekuntzan oinarrituta ulertzen dugu bikaintasuna.

Proiektu bakoitzean, gainera, pertsonen emozioak lantzeko ahalegina egiten duzue, ezta? Zelan?

Irakasle guztiek bi urtez formakuntza jaso eta gero, sehaska gelatik hasi eta DBH 4. mailako ikasleekin egiteko ekintza plana sortu genuen. Horretan, jarduera guztiak modu sistematikoan lantzen eta ebaluatzen dira, eta pentsatuta daude 5 helburu nagusi lortze aldera: norbere emozioak eta bestearenak hautematea; emozio horiek ulertzea eta enpatiaz jokatzeko; hauteman eta ulertu ondoren, emozio horiek erregulatzeko gai izatea; giza baliabideak garatzea; eta azkenik, gatazkak era positiboan bideratzea.

Era berean, garrantzi berezia ematen diozue ikasleek jaten dutenari. Hori dela-eta, jantoki propioa duzue Betiko Ikastolan...

Bai, gure jantokia propioa da, elikatze prozesu guztia ikastolan kudeatzen dugu. Janariaren prestaketan eta ikasleek bazkarietan langileria propioarekin aritzen gara eta menuaren definizioa eta jakien hornitzaile gehienak ere ikastolarekin zuzeneko harremana duten pertsonak dira.

Bestetik jantokia familiei eskaintzen zaien zerbitzua izatetik gure hezkuntza-proiektuaren barruan izatera pasatu dugu, egun elkarbizitza lan-

tzeko eremu aproposa izateaz gain, ikasleek etorkizunean izango dituzten elikatze ohiturak, beraien bizitzarako onuragarriak izango direlako, ikastolako jantokian lantzen ditugu.

Amaitzeko ere azpimarratu nahi dugu, gure ikasleek jaten duten menua prestatzeko kalitate oneneko lehengaiak bilatzen ditugula, freskoak, hurbilekoak, modu jakin batean ekoiztutakoak eta jatorri ezaguetik ekarritakoak, bai baserrietatik, edo portutik zuzenean zein bazkideen dendetatik.

Urteak aurrera joan ahala, ikastola handituz doa. Aurrerantzean, zein

D eredua

Adin-tartea

0-16 urte

Eskola-ordutegia

Haur Hezkuntza: 08:00-18:30

* Ikasturtean zehar haur hezkuntzako ikasleentzat goizeko 08:00etatik 18:30era arte haurtzaindegiz-zerbitzua dago. Zerbitzua doakoa da. Ikasleak askaria jasotzeko aukera ere badago.

Lehen eta Bigarren Hezkuntza:

09:00-16:30

Zerbitzuak

- Autobusa.
- Jantokia: bazkaria ikastolan bertan egiten da, bertoko produktuez osaturiko menu orekatuak eskaintzen dira.
- Haurtzaindegia.

Eskolaz kanpoko zerbitzuak

- Kirol eta kultur jarduerak antolatzen dira: euskal dantzak, pandero-eskolak, etab.

Izen-ematea irekita dago beti!

Eskatu hitzordua: 94 464 23 64 telefonoan eta gustura erakutsiko dizugu.

zabalpen ematea aurreikusi duzue?

Ikastola handitzen ari da, hiru urte barru bigarren lerroa izango dugu etapa guztietan, 750 ikasle inguru, eta handitze horri erantzuna eman ahal izateko DBH 3 eta 4rako gela berriak izango dituen eraikin berri bat altxatu behar dugu, eta beste eraikin berri bat administrazioa bertan kokatzeko.

Eraikin berri horietan askotariko erabilera izango duten espazio ugari ere sortuko dugu, gure hezkuntza proiektuari tresna gehiago eskainiko dizkietenak. Guztia inguruari ahalik eta kalte txikiena eginez eta gure ikasleek hain maite duten ikastolako «mendia» ahalik eta gutxien kaltetuz. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.

Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez!

Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artatza auzoa 84 (LEIOA)

info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net



**Helbidea:**

Jado kalea, 21
eta Tartanga, 13.
48950 - Erandio

Telefona:

94 467 54 11
94 467 25 58

E-posta:

idazkaritza@
jadoikastetxea.com

Webgunea:

jadoikastetxea.com



Jado ikastetxea

Etengabeko berrikuntzaren alde

Eskola itundua da Jado Ikastetxea, bere entitate titularra Jado Fundazioa da. Maristen ildo pedagogikoa jarraitzen du, eta beronek paregabeko izaera ematen dio Erandioko udalerrian.

Jado ikastetxea 1935ean sortu zen, Laureano Jado jaun ongileak bere zuzendaritza Maristen esku utzita. XX. mendearen amaieran, Euskal Herrian gertaturiko jaiotza-tasaren jaitsieraren ondorioz, Nuestra Señora de la Compasión eskolarekin bat egiteko prozesuari hasiera eman zion Jado. Harrezkero, Jado Ikastetxearen bilakaera erabatekoa izan da. 2014-

2015eko ikasturtean beste eraberritze bat onartu zen, lehenengo aldiz Ikastetxearen historian zehar zuzendari laiko bat izendatu zen.

Azpiegituri edo instalazioei dagokienez, gaur egun bi eraikin ditu Jado: bata, Tartanga kalean, eta, bestea, Geltoki kalean. Horietan, ikasgelez gainera, kirol instalazio hauek dauzka: frontoia, bi gimnasio, psiko-

motrizitate gela, bi areto futbol-zelaia eta bi saskibaloizelaia.

Estrategia eta balioak

Jado Hezkuntza Proiektuak hiru zutabe nagusi ditu: heziketa integrala eta inklusiboa, Maristen ildo pedagogikoa eta programa eleaniztuna, D eredua abiapuntu. Heziketa eskaintza globala eta orekatua da, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHren beharrak kontuan hartuz. Proiektua adimen maila guztien garapen orekatuan datza eta estimulazio goiztiarra ere lantzen da, lehen urtetik aurrera. Horren denaren oinarria etengabeko berrikuntza da. ◀

Eredua: Eleaniztasun proiektua, D eredua abiapuntu izanda

Adin-tartea

1-16 urte

Eskola-ordutegia

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza:

09:00-13:00 / 15:00-17:00

*Eguaztenetan salbu, 9:00-13:00

*Irailen eta ekainean goizez bakarrik

Bigarren Hezkuntza (DBH):

08:30-13:00 / 14:30-16:30

*Eguazten eta barikuetan, 8:00-13:30

*Irailen eta ekainean, 8:00-13:30

Zerbitzuak

- Autobusa eta jantokia
- Liburutegia Jado Geltokia eraikinean
- Haurtzaindegia. Goiztiarrentzako gela: 8:00-9:00

Eskolaz kanpoko zerbitzuak

- Eskolaz kanpoko ekintzen eskaintza zabala: ingelesa, saskibaloia, futbola, taekwondo, dantza...
- Psikopedagogia eta logopedia orientabidea eskaintzen da.
- Kultur ekintzen antolakuntza: Euskal Astea, Olentzero, Jadotxo eguna...

Izena emateko jarraibideak

- Zentroaren idazkaritzan bertan, telefonoz edo posta elektronikoz.
94 467 54 11 - 94 467 25 58 / E-posta: idazkaritza@jadoikastetxea.com



Haurreskola (1-2 urte)
Irailak 1- uztailak 30
Gabonetan eta Aste Santuan
Eleaniztasun Proiektua

Goiztiarrentzako gela (8:00- 9:00)
Jantokia
Eskolaz kanpoko jarduerak
Giro hurbila

EGIN ZAITEZ HIRUKA laguna!

...eta abantaila ugariz goza egizu
zozketak astero, astekaria eguaztenero zure e-postan...

Urtean, gutxienez 35 eurotik aurrera

Info.+: Tel: 94 491 13 37 edo hirukakoop@hiruka.eus



Aixerrota BHI



Helbidea: Santa Marina Haitza 14, 48993 - Getxo

Telefonoa: 94 491 17 86

E-posta: 015109aa@hezkuntza.net

Webgunea: www.aixerrota.hezkuntza.net

Adin-tartea: 11-18 urte

Aixerrota Ikastetxeak, 1983an sortu zenetik, irakaskuntza euskalduna eta pedagogia berriazalea izan ditu ezaugarri nagusi. Egun, B eta D ereduak eskaintzen ditu.

Proiektuak pertsonaren hezkuntza integrala du helburu, zeregin honetan oinarritzko balio ditu: errespetua, as-

katasuna eta autonomia pertsonala. Kulturaren balio integratzailea ardatz harturik, euskara dute bizikidetzarako eta komunikaziorako elementu nagusia. Egun, ikastetxeak hamaika proiektu ditu martxan, hala nola, Agenda 21, IKT, Normalkuntza, Sarehezkuntza eta Eleaniztasunerantz. ◀

Izena emateko bideak

Online edo ikastetxeko idazkaritzan bertan. Idazkaritzako ordutegia: 09:00-13:30 / 15:00-16:30 (ostiraletan izan ezik). Info+: www.aixerrota.hezkuntza.net

AIXERROTA BHI

BATXILERGOAK

- TEKNOLOGIKOA
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH): B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

Informazio gehiago:
www.aixerrotabhi.net
94 491 17 86

Artatza-Pinueta LHI Ikastetxea



Helbidea: Artatza auzoa 81, 48940 Leioa

Telefonoa: 94 463 84 29

E-posta: 014331aa@hezkuntza.net

Webgunea: www.artatzapinueta.hezkuntza.net

Adin-tartea: 2-12 urte

Artatza-Pinueta D ereduko ikastetxe publikoa da, lerro bakarrekoa eta familiarra. Urteetan zehar, hainbat berrikuntza fisikoren eta metodologikoren ostean, eskola «Ikas komunitateko» eta «Heldutasun teknologikoa» sareko parte da 2004. urtetik, horrela, ikastetxeko komuni-

tate osoaren parte-hartzea bultzatuz. Gaur egungo gizartera moldatzeko prestakuntza duen ikasleria euskalduna hezteko dute erronka nagusia. Metodologia aktiboa eta parte-hartzailea eskaintzen dute, euskal kultura bultzatuz, giro atseginean murgildurik aniztasunari erantzuna emanez. ◀

Izena emateko bideak

Online edo ikastetxeko idazkaritzan bertan. Ordutegia zehazteko telefonoz deitu. Familia berriekin banakako hitzorduak eskatzeko aukera dago. Telefonoa: 94 463 84 29.

ARTATZA Ikastetxea

Haur eta lehen hezkuntza D ereduak

Ikas komunitate bat gara, familiarra, euskalduna, herrikoia eta inguru natural batean kokatua.

Denon eta denontzako eskola. Ikasi eta hazi gurekin.

Artatza auzoa 81
48940 Leioa
Telefonoa: 94 463 84 29
e-mail: artatzapinueta@gmail.com
IGE-AMPA: ampa.artatza@gmail.com
www.artatzapinueta.hezkuntza.net

IES Uribe Kosta BHI



Helbidea: Gatzamina z/g, 48620 Plentzia

Telefonoa: 94 657 10 40

E-posta: uk@uribekostabhi.com

Webgunea: www.uribekostabhi.com

Adin-tartea: 12-18 urte

Uribe Kosta BHI, B eta D ereduak, nerabe eta gazteekin lan egiten duen institutu publikoa da, eleaniztasuna eta sare-hezkuntza proiektuaren oinarriak dituelarik. Metodologia kooperatiboa eta parte-hartzailea eskaintzen dute ikastetxean, eta ikasleriaren artean IKTen erabilpe-

na lehenesten dute. Institutuaren instalazioei dagokienez, ikasgelez gain, liburutegi propioa, 3 informatika gela eta chromebook gela bat, gimnasioa eta kiroleraren aritzeko patio estalia eta estaligabea ditu. Eskolaz kanpoko kultur eta kirol jarduerak eskaintza zabala eta anitza dauka ikastetxeak. ◀

Izena- mateko bideak

Online edo ikastetxeko idazkaritzan bertan. Ordutegia zehazteko telefonoz deitu. Telefonoa: 94 657 10 40 edo e-postaz: uk@uribekostabhi.com.

UribeKosta
I. E. S. / B. H. I.

IKT erabilgarritasun maila ALDIZKARIAN ikasleentzako
Centro especializado en el uso ALDIZKARIAN de las TIC

- DBH: Eleaniztasuna bultzatzen eta IKTen heldutasun maila aurreratu
- Batxilergoa: Gizarte Zientziak eta Humanistikoa zein Zientifiko-Teknologikoa

K/ Gatzamina z/g 48620 Plentzia - Tfno: 946571040
Web orria: www.uribekostabhi.com - e-mail: uk@uribekostabhi.com

«Hezkuntza sustatzen dugu, maitasunetik»

Maitasuna eta errespetua oinarri dira umeen hezkuntza eta harremana sustatzeko, Hazibideak ekimenaren kideen ustez. Balio horiek ume eta gurasoak partekatzen dituzte.



Gonzalezek eta Leturiondok Sendiren beste kideen laguntza dute Hazibideak garatzeko.

Datorren azaroan hamar urte beteko ditu Sendi ekimenak; bere helburua da Getxoko umeen gurasoek euskara erabiltzea eta familia osoak euskarazko jardueretan ondo pasatzea. Egizu Getxo Euskaldun! elkarteak eta Getxoko Udalak abiatu zuten, elkarlanean. Handik hona hamaika ekimen antolatu dute, tartean Olgetan Euskaraz, familiek euskaraz gozatzeko tailerrak edo euskara ikasteko udal laguntzen berri ematea. Martxan ipinitako azken ekimena Hazibideak da, orain dela hiru urte abiatutakoa; horren berri luze eta zabal eman digute Mertxe Gonzalezek eta Amaia Leturiondok.

Zer da Hazibideak ekimena?

Mertxe Gonzalez: Ekimenaren helburua da errespetuan eta maitasunean oinarritutako hezkuntza eta harremana sustatzea, beti ere atxikimenduaren teoria oinarritzat hartuta. Horretarako, bi atal lantzen ditugu: hitzaldiak eta guraso-taldea. Hitzaldien bidez hainbat gairen inguruko informazioa zabaldu nahi dugu: komunikazioa, adimen emozionala, haurtzaroko oinarri sen-

doak... Eta hitzaldietan entzun eta ikasitakoaz eztabaidatu eta hausnartzeko, talde bat dugu, guraso eta umeekin.

Zertan datza atxikimenduaren teoria?

Amaia Leturiondo: John Bowlby psikologoak jarri zion izena teoria horri; ume jaio berriak ama -edo, haren orde, aita edo beste heldu bat- behar du, haren gertutasun fisikoa sentitu behar du -azala, usaina, beroa, bihotzaren taupadak-, babestuta eta zainduta dagoela sentitu behar du. Ezinbestekoa zaion atxikimendu horri esker lortuko du bizitza osorako behar izango duen oreka emozionala.

Zeintzuk izango dira Hazibideak egitasmoaren hurrengo ekimenak?

M.G.: Amelia Barquín irakaslearen eskutik, guraso, irakasle eta hezitzaileen-tzako hitzaldi bat antolatuko dugu: *Generoa eta hezkuntza*. Otsailaren 23an izango da, asteartea, 17:30ean, Zabala ikastetxean. Doan izango da eta haurtzaindegi-zerbitzua egongo da. Horretaz gain, bi hiletik behin, familien bilera-meriendak egiten ditugu, kezkatzen gaituzten eta gustatzen zaizkigun

gaien inguruan berba egin, hausnartu eta eztabaidatzeko.

Zelan hartu dute ekimena gurasoek?

A.L.: Hori izan zen gure hasierako zailtza -ea gai eta ikuspegi hauek gurasoentzat interesgarriak ote ziren- eta lehen hitzaldian bertan ikusi genuen baietz; hiru urteotan dozena bat hitzaldi antolatu dugu eta bakoitzean 40-50 bat guraso, irakasle eta hezitzaile egon ohi dira. Noizbehinka antolatzen dugun guraso-taldera berriz, 5-6 familia hurbiltzen dira, eta aktiboa da oso: kezkak, galderak eta proposamenak egin eta konpartitzen ditugu.

Zelan eman daiteke izena?

M.G.: Telefonoz edo posta elektronikoz egin daiteke.

Beste zer edo zer aipagarririk?

A.L.: Ekimena gutiz irekia dela: edonor etor daiteke, parte hartu, ekarpenak egin, jendea ezagutu... Hitzaldiak denon artean antolatzen ditugu eta 2016a erronka interesgarri dugu beteta. ◀

info+: egizu.eus/sendi/hazibideak
 685 732 963 / sendigetxo@yahoo.com

Sendi

Getxoko familietan euskara sustatzeko proiektua
 Un proyecto para impulsar el euskera en las familias de Getxo

HAZIBIDEAK

Hitzaldia guraso eta hezitzaileentzat

Noiz: otsailak 23, asteartea, 17:30-19:30
Non: Zabala ikastetxeko liburutegian (Zabala 3, Algorta)
Norentzat: guraso eta hezitzaile euskaldunentzat
Haurtzaindegi-zerbitzua: doan (aurretik jakinarazi)
Izena eman: 685 73 29 63 (Lander) sendigetxo@yahoo.com

Generoa eta hezkuntza

-Zer da generoa? nola eta nork erabakitzen du?
 -Neskak eta mutilak antzeko tratatzen eta hezten ditugu familian?
 -Nola jokatu dugu eskolan?
 -Zeintzuk dira gure zailtza, zailtasunak eta erronkak?
 -Zer da garrantzitsua hezkuntzan generoarekin lotuta?

Amelia Barquín Lopez filologian dokorea irakaslea da HUHEZI fakultatean (Mondragón). Ikerketa eta irakaskuntza gaiak honakoak ditu: kulturarteko hezkuntza, ikasle etorkin-en hezkuntza tratuak, hezkuntzaren erabilpen ez-sexista eta hezkuntza eta generoa.

DOAN
 otsailak 23
 asteartea
 17:30-19:30



SENDI proiektua Getxoko Udalaren eta Egizu elkartearen elkarlanean antolatzen da. Informazio gehiago nahi baduzu, www.egizu.eus/sendi edo telefonoz 685 732 963 (Lander) edo posta elektronikoz sendigetxo@yahoo.com-en gaituzte.

SENDIren
 otsail eta martxoko
 tailerren informazioa
www.egizu.eus-en

info.+ 685 732 963
 sendigetxo@yahoo.com



Kantagunearen kalejira, barikuan

Bariku honetarako, urtarilak 29, kan-tu-jira antolatu du Plentziako Kantagu-nea taldeak. Horrenbestez, 19:00etan ipini dute hitzordua baselizan, entse-gua egiteko; 20:30ean abiatuko dira kantu-jiran Alde Zaharretik. ◀

Grindetxefest egingo dute Xurrut tabernan

Zapatuan, urtarilak 30, Ispasterko Grin-detxe diskoetxearen aldeko laugarren jaialdia egingo dute Xurrut pizzerian, 21:00etatik aurrera. Besteak beste, So-pelako Melmak eta Udondo gaztetxean sortutako Piketa taldeek joko dute. ◀

Bakearen alde, puxikak askatuz

Aurreko urteetako ohiturari jarraituz, domeka honetan, urtarilak 31, puxikak askatuko dituzte Gorlizen, bakea alda-rrikatzeko asmoz; hitzordua 12:30ean jarri dute, elizako plazan. Inguruko he-rrietako parrokiek antolatu ohi dute. ◀



Sortzaile ezberdinek osatutako film kolektiboak 126 minutu dirau. ZINEA.EUS

Euskal Harriaren ABDak, Algortan

Katihotsak Logiako lagunek euskal alfabetoko 26 hizkietako bat egokitu zieten beste horrenbeste euskal zinemagile-ri, hizki horietatik abiatuta zientzia-fikziozko film labur bat egiteko. Zati horiek batuta sortutako euskarazko film kolek-tiboa hainbat herritan aurkezten dabilta orain. ◀

Noiz: Otsailak 2, martitzena.
Ordua: 09:15, 11:00, 17:15 eta 19:30
Non: Algortako kultur etxea (Getxo)
Sarrera: Doan.
Antolatzailea: Egizu Getxo Euskaldun.

2016/01/28 - 19:00

Musika-entzunaldia eta mahai-ingurua

Liburutegi zaharra | Barrika
Gertuko Auzokide Elkarteak Tchaikovsky-ren 6. sinfonia aukeratu du. Gaztelaniaz. Doan.

2016/01/28 - 19:30

Operari buruzko berbaldia

Algortako kultur etxea | Getxo
Mugabarik elkarteak antolatuta. Jose Quisilant piano-joleagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/01/28 - 20:00

Willie Endaya blues-abeteslaria West Side Bat (Itzubaltzeta/Romo) | Getxo

Getxo Zuzenean ekimenaren barruan. Doan.

2016/01/29 - 17:30-19:00

Ludoteka

Liburutegia | Barrika
3 eta 12 urte bitarteko neska-mutilentzat. Doan.

2016/01/29 - 19:00

Sopelako musika-eskolako ikasleen entzunaldia

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Sarrera, doan.

2016/01/29 - 20:30

Heian zirku-ikusbizuna

Kultur Leioako entzungela | Leioa
Zen del Sur (Andaluzia) taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 10 euro.

2016/01/29 - 21:00

La playa de los ahogados filma eta mahai-ingurua

Areetako musika-eskola | Areeta
Zine-klubeko zikloaren barruan. 12 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,90 euro.

2016/01/30 - 2016/01/31 - 10:30

Zurrumurruen kontrako estrategiei buruzko topaketak

Fadura kiroldegia (Algorta) | Getxo
Gaztelaniaz. Doan. Parte hartu gura dutenek aurretik izena eman beharko dute: www.getxo.eus.antrumores

2016/01/30 - 16:30-22:00

Play Station lehiaketa, Plentziako Topagunean Golenkale, 25 | Plentzia

Parte-hartzea, doan. Informazio gehiago: 688 603 372 / gazteinfo.plentzia@bizkaia.org

Berango Antzokia | Berango

Umorezko bakarrikzketak, ilusionismoa eta musika, zuzenean. Helduentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro.

2016/01/30 - 20:00

Juan Muñoz eta Juan Carlos Cordobaren umore-bakarrikzketak

Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Encomendados zirkuituaren barruan. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

2016/01/30 - 20:00

Zerura eroria antzeztanaren aurre-estreinaldia

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Anodino Teatro taldeak antzeztua. Euskaraz. Sarrera: 3 euro.

2016/01/31 - 09:30

Mendi-bizikletari buruzko teknikaren gaineko ikastaroa

Kruzeta Kalea, 5 | Gorliz
Mendibike taldeak emanda. Hasiera batean, bazkideentzat baino ez da izango; lekurik badago gainerakoak ere hartuko dituzte. Izen-ematea: mendibike@mendibike.net

2016/01/31 - 11:00

Itxartu taldearen 30. krosa

Algortako batzokia | Getxo
Maila ezberdinetako lasterketak egongo dira. Izen-ematea (doan), urtarilaren 28ra arte, Kantxa eta Gaztañaga kirol-dendetan zein Fadura kiroldegian; baita Internet bidez eta krosaren egunean bertan ere. Informazio gehiago: itxartu.itxartu@gmail.com

2016/01/31 - 17:00

Atrapa la bandera filma

Berango Antzokia | Berango
Denentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

2016/01/31 - 18:00

Big hero 6 filma

Berango Antzokia | Berango
Umeentzat. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/01/31 - 19:00

Irrational man filma

Astrabuduko kultur etxea | Erandio
12 urtetik gorako ikusleentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

2016/02/02 - 10:00-12:00

Emakumeen Jabekuntza Eskola

Behargintza (Desanexio kalea, 4) | Erandio
Martitzenetan izaten dira saiokak. Sarrera, doan. Informazioa: 944 175 616

Astegunetan
11:00-13:00
eta 16:30-20:00

Otsailaren 1etik 14ra
Goñi Portalen





Makilak eskuan, goizean zein arrasti-gauean ibiliko dira kantuan hainbat eta hainbat lagun.

Hasi samak berotzen!

Agate Deuna bezperan, koplek beteko dituzte Euskal Herriko txoko eta bazterrak; Uribe Kostan hainbat txapelketa eta hitzordu ipini dituzte.

Makilak lur joka laster, lo-zorrorekin itzartzeko. Agate Deuna martiriari gora-zarre egiteko garaia erabada. Hala, urtero legez, Getxoko Udalak Agate Deuna Koru Jaialdiaren 29. edizioa antolatu du egun horren bezperarako; otsailaren 4rako, alegia. Hilaren 21era arte egon da izena emateko aukera. Taldeek arrastian kantatuko dute, 18:00etatik 21:00etara bitartean, gune bitan: lehenengoa, Itzubaltzeta/Romo eta Areeta auzoetan, Xake plazatik abiatuta; eta bigarrena, Algorta eta Andra Marin, Telletxe plazatik hasita. Gainera, lehenengo guneko abesbatzak Xake plazan batuko dira 20:00etan, denen artean emanaldia eskaintzeko. Bigarren gunekoek beste horrenbeste egingo dute Telletxen.

Leioan, 27 urte beteko ditu aurten Santa Ageda Kantuen Lehiaketak. Ohi den legez, 16 urtetik beherakoak goizean zein arrastian ibiliko dira; hortik

gorakoek arratsalde-gau partean abestuko dute. Besteak beste, bost kanta-eremu ezarri dituzte, talde bakoitzak gehien komeni zaiona aukera dezan. Ondokoak dira: Lamiako, Pinueta, erdigunea, San Bartolome eta Udondo. Halabeharrez kantatu beharreko hainbat leku egongo da eremu bakoitzean. Bestalde, gutxienez, 12 partaide eduki beharko ditu talde bakoitzak; kontuan hartuko dira kantarien janzkera eta girotzea, oro har. Urtarrilaren 29ra arte dago lehiaketan izena emateko aukera, Kultur Leioan. Sariei dagokienez, hurrenez hurren, 350, 250 eta 175 euro

**Goiz-eguerdian
eskolatik aterako dira
gaztetxoak; arrastian,
helduak batuko zaizkie**

jasoko dituzte lehenengo hirurek. Halaber, oinarriotan ezarritako betekizunak betetzen dituzten abesbatzek 60 euro izango dituzte. Sariak otsailaren 6an, zapatua, banatuko dituzte, 12:00etan, Kultur Leioan.

Sopelan ere kantu lehiaketa egingo dute otsailaren 4an; izen-emateak aurreko egunera arte egin daitezke, Kurtzio kultur etxean. Hala, gutxienez, 10

lagunez osatuta egon beharko dute taldeek; partaide denek sopoloztarrak izan beharko dute. Maila bi egongo dira: batetik, 18 urtetik beherakoak; eta bestetik, adinez nagusiak. Kategoría bakoitzean sari bana emango dute: 150 eta 250 euro, hurrenez hurren. Bestalde, baserritarrez jantzita abestea beharrezkoa da. Halabeharrez, ondoko lekuetan egin beharko dute kantatuan: Larrabasterrako Urgitxieta plazan 12:00etan; edo, udaletxeko plazan 18:00etan. Baita ondorengo tabernetan ere: Laiak, La Kala, Urbaso, Setien, Señe eta Irubide.

Hainbat kantaldi

Plentzian kantaldia antolatuko du Udalak egun horretarako. Horrenbestez, arrastian, 18:00etan, Ontziola plazan batuko dira abesteko asmoagaz. Gero, ondoko ibilbidea jarraituko dute: Erribera, Barrenkale, Artekale, Goenkale, Azurtegioko plaza eta Elizako plaza. Azken geraleku horretan, 19:00ak aldera, txokolata eta bizkotxoak eskainiko dizkiete herritarrei.

Azkenik, Barrikan, otsailaren 6an (zapatua) aterako dira abestera, goizeko 09:00etan, udaletxeko plazatik; 15:00ak arte ibiliko dira auzoz auzo eta baserriz baserri. Orain dela lau urte, Aita Gotzon abesbatzako hainbat ki-

dek herrian erdi galduta zegoen Agate Deunaren kanta-ibilaldia berreskuratu zuten; baina, hilaren 4an beharrez, osteko zapatuan ibiltzen dira kantu-jiran. Gaur egun, 25 bat lagunek parte hartzen dute. Aurten, kantaldiaren ostean, herri-bazkaria (porrusalda, solomoa, postrea eta edaria) edukiko dute batzokian, 15 euroren truke. ◀

Getxo

Taldeak Areetako Xake eta Algortako Telletxe plazetan batuko dira 20:00etan gutzien arteko emanaldia egiteko.

Leioa

Goiz zein arratsalde ibiliko dira taldeak ondoko gunetan: Lamiako, Pinueta, erdigunea, San Bartolome eta Udondo. Urtarrilaren 29ra arte dago izena emateko.

Sopela

Urgitxieta plazan, 12:00etan, edo udaletxeko plazan, 18:00etan, abestu beharko dute taldeek. Otsailaren 3an amaituko da izena emateko epea, Kurtzio kultur etxean.


Plentzia

Kantaldia egingo dute, 18:00etan Ontziola (Astillero) plazatik abiatuta; 19:00ak aldera, txokolata eta bizkotxoak banatuko dituzte Elizako plazan.

Barrika

Otsailaren 6an abiatuko dira, 09:00etan, udaletxeko plazatik; 15:00ak arte ibiliko dira auzoz auzo eta baserriz baserri. Ondoren, bazkaria egingo dute batzokian.

Anodinoren lehenengo antzezlan, Sopelan



Kurtzion hamabost eguneko sormen-egonaldia egin du Anodino Teatrok, antzezlan gorpuzteko. © SOPELAKO UDALA

Zerutik eroria obraren aurre-estreinaldia zapatu honetan, urtarrilak 30, izango da Kurtzio kultur etxean. Estreinaldi ofiziala, berriz, otsailaren 15ean egingo dute Kultur Leioan, Kultur Maratila jardunaldien barruan.

Zapatu honetan, hilak 30, Anodino antzerki-taldeak sortu berri duen *Zerura eroria* lehenengo lanaren aurre-estreinaldia ikusteko aukera egongo da, Sopelako Kurtzio kultur etxean. Ema-naldia 20:00etan hasiko da; sarrerak 3 euroan eros daitezke, ohiko lekue-

tan. Estreinaldiari dagokionez, otsailaren 25ean egingo dute, Kultur Leioak eta Artedrama plataformak antolatzen duten Kultur Maratila jaialdian.

Zerura eroria antzezlan egitea Bilboko Pabellon 6 gunean zeudela bururatu zitzaizen Florentino Badiola, Aiora Sedano eta Aitor Fernandez aktoreei.

2014ko ekaineko Antzerki Laburren II. Jardunaldietan, Mikel Fernandino idatzitako obra labur bat aurkeztu zuen hirukoteak; zero kapitalistaren kapritxoak jasan behar dituen hilotz gizajo bati buruzko dibertimendu burugabea izan zen *Dios* © obra. Pieza labur horrek oso harrera ona izan zuenez, antzezlan luzeago eta landuagoa egitera animatu ziren; umore beltz, absurdo eta histrionikoan murgiltzeko asmoz. Kurtzion, 15 eguneko sormen-egonaldia egin dute Anodinoek, antzezlan gorpuzteko. ◀

Etxetik gertu erakusketa zabaltu dute Leioan

Jose Pablo Arriaga artistak (Markina-Xemein, 1969) ikusgai ipini du *Etxetik gertu* izeneko eskultura eta pinturako bere azken bilduma Kultur Leioan; joan den eguaztenean (hilak 21) inauguratu zuten ekimena. Lan horregaz «norabide aldaketa positiboa» eman gura dio munduari markinarrak, «gero eta zailagoa baita gizadiagaz fidatzea». Bakezale ezin-ezagunagoa zen Mahatma Gandhiren berbak gogora ekarri ditu: «Ez dugu galdu behar gizadiagaz daukagun konfiantza, itsasoaren parekoa baita: ez da lohituko, tanta batzuk lohi egonik ere».

Etxetik gertu mostra otsailaren 28ra arte egongo da kultur areto leioazta-



Arriagaren artelanak Kultur Leioan.

rreko erakusketa-gelan. Ordutegiari dagokionez, astelehenetik barikura, 10:00etatik 20:00etara egongo da zabalik; eta zapatu, domeka eta jaiegunetan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. ◀

Otsailaren 5ean, disko berria plazaratuko du Travellin' Brothers talde leioaztarrak

Bi urtez ibili da munduan barrena Travellin' Brothers blues-talde leioaztarra; Magnolia Route biraren barruan, 120 kontzertu eman dituzte, 11 herrialdetan. Halaber, Bruselan (Belgika), European Blues Challenge txapelketa irabazi zuten, baita Memphis-eko (AEB) lehiaketan finalista suertatu ere. Oraingo honetan, *One day in Norway* diskoa plazaratuko dute, otsailaren 5ean; izenburuak dioen bezala, Norvegiara egindako bidaia baten 24 orduak «laburbildu» dituzte lan horretan: herrialdera joan, Notodden-eko jaialdian jo, apur bat lo egin, eta 8 orduan grabatu zuten bertoko Juke Joint estudioan. ◀



Zulotik

ARMANDO LLAMOSAS RUBIO
Kultura ondarearen teknikaria

Munduko Ondarea izendatzea?!

Hamaika ikusteko jaioak gara! Lekua utzita, makro-hotela, geroari buruzko zalantzak... eta, bat-batean: «*Punta Begoña UNESCOk Munduko Ondarea izendatzea nahi da*».

Behin baino gehiagotan, esan dugu (hemen ere bai) Punta Begoña, kokapenagatik, historia-gatik, monumentua izateagatik, Getxoko ondare nagusietako bat dela. Beraz, balitz bezala tratatu beharko genuke: konpondu, zaindu, ikertu, landu, erakutsi eta haren baloreak zabaltu, bertakoek zein kanpokoek disfrutatzeko. Antzekoa izan behar zuen prozesuak, logikoa eta harritzen ez duen prozesua, edozein monumenturen bezalakoa. Horregatik, duela bi urte, ez guztiek, onartu genuen Punta Begoñari buruzko egindako plangintza, *baina*-k eta arazoak ikusi arren. Unibertsitateak, bermea emateaz gain, Udalari itzalak kentzen bide zizkion. Hau da, seriotasuna zein konfiantza ematen zion.

Sentitzen dut. Punta Begoña ez da Munduko Ondarea, eta ez du izan behar. Zertarako? Ez du betetzen haien irizpiderik, ez da batere beharrezkoa. Ondarea zaindu eta ondo kudeatu behar dugu; ondare itzela baita, esanguratsua baita eta hiritarroi gutaz asko esaten baitigu. UNESCOren izendapenak balore gehiagorik ez dio emango. Burutazio hori, agian, turismo sakrosantua ekartzeko estrategian dago. Txarragoa. Punta Begoñak ez du merezi erabilera hutsal hori. Getxon ezin da dena gurutzaontzien menpe egon, batez ere, zentzurik ez duenean.

Berriak beldurra eman zidan. Bide horretatik bagoaz, orduan bai, Punta Begoña arriskuan dago. Edo ez dakite zertan dabil-tzan, edo ez dute baloratzen. Aukeratu. Norbaitek Udalean erantzungo zuelakoan nengoen. Inork ez. Gai honi buruzko tentsioa galdu ei da. Berri txarra. ◀



Iaz, 458 atletak parte hartu zuen krosean. © ITXARTU TALDEA

Itxarturen krosak 30 urte beteko ditu domeka honetan. Lasterketa mistoak hamar kategoría izango ditu, adinaren arabekoak, 330 eta 5.500 metro bitartekoak.

Itxartu Taldearen krosa Algortan egingo da, hilaren 31n, domekan. Ohi legez, Algortako batzokitik irteten eta bertan amaituko da proba. Kategoría beheko lasterkariek Algortako etorbideko zirkuitu bati bira eman- go diote. Nagusien kasuan, ordea, Zabala, Torrene, Mariandresena eta Telletxe zein Algortako etorbidea ka-

leetan barrena korrika egin beharko dute. Ibilbidea 2010ean jaiotakoek zein gazteagoek estreinatuko dute, goizeko 11:00etan, Algortako etorbideko zirkuituari bira erdia (330 metro) emateko. Ondoren, zirkuitu berean jardungo dute benjamin-aurrekoek (500 metro), benjaminak (500), kimuek (1.000) eta hurrek (1.500). Goizeko 11:45ean, zir-

kuitu zabala irekiko dute 2001ean jaiotako kadeteek; 2.200 metro bete beharko dituzte. Haien ostean, gazteek eta beterranoek korrika egingo dute, 3.300 eta 4.400 metroko distantziak hurrenez hurren betetzeko.

Azken kategoría, seniorrena, 12:30ean abiatuko da. 5.500 metroren ostean, lasterketa 13:00etarako amaituta egotea espero dute antolatzaileek. Krosaren ostean, Itxartu Taldeak sariak banatuko ditu, eta Getxo Kirolak emandako opariak zozkatuko ditu. Gainera, behe-mailako korrika-

lari txikiek gutxienez domina bana jasoko dute. Era berean, parte-hartzaile denek euren zirkuitua bete ostean ogi-tartekoa eta edaria jasoko dituzte.

Izen-ematea

Izen-ematea doan egin daiteke Internetez, zein Kantxa Kirol Moda eta Gaztañaga kirol-arropa saltokietan, eguneko 24:00ak arte. Halere, lasterketaren egunean, urtarrilak 31, inskripzioa egiteko aukera egongo da Algortako Batzokiko patioan. ◀

izen-ematea: Itxartu.com

Kosta Trail ekainaren 12an egingo dute aurten

Kosta Trail lasterketako antolatzaileek zabaldu dutenez, aurtengo elkartasun-proba hori ekainaren 12an egingo dute, domekan. Ohi legez, Sopelan egingo dute. Data iragartzeaz gainera, lasterketaren 11. edizioak izango duen nobedadea jakinarazi dute: lehenengo aldiz, 21 kilometroko mendi-maratoi erdia egingo dute da. Aurretik, beste hiru aukera zituzten kirolzaileek: 30 kilometroko lasterketa, mendi-martxa (20 kilometro), eta sendientzako martxa, 10 kilometrokoa.

Antolatzaileek gogoratu dutenez, Kosta Trail da lehenengo mendi-lasterketa itsasoaren altueran egiten dena,



eta pozik agertu dira urterik urtera parte-hartzaile gehiago batzen dituelako. Pasa den urtean, orain arteko marka gauditu zuten, 4.300 pertsona batuta. Horri esker, probak 14.000 euro batu zituen, eta Bizkaiko Diabetes Elkarteari eman ahal izan zizkietenak. ◀

info+: Kostatrail.com/eu/



© BIZKAIKO ATLETISMO FEDERAZIOA

Berangoko Miliari saria

eman zioten hilaren 16an, 2014-2015 denboraldian 10 kilometrotik beherako Estatuko lasterketen antolakuntzan onena izateagatik. Josu Hernandez Berangoko Atletismo Taldeko presidentek jaso zuen garaikurra Espainiako Olinpiar Batzordeko egoitzan.

SARTU GURE WEB BERRIAN
www.cianoplan.es
902 103 763

kartelgintza

inprimategia

kopisteria

Bizkaiko Saskibaloiak, 75 urte

Sopelak hondartza-saskibaloiaren txapelketaren lehenengo edizioa hartuko du uztaillean, Bizkaiko Saskibalo

U ribe Kosta bada nor Bizkaiko saskibaloian. Klub garrantzitsuak baditu, berbarako: Getxo, Leioa, Ugeraga edo Askartza. Eta horiekaz batera, baloiak saskira botatzeko hamaika talde eta neska-mutil asko eta asko batzen da honako klubetan ere: Erandio-Altzaga, San Nikolas, Gaztelueta, Bilbao Basket Erandioko Zale Taldea, Gaztelueta, Irlandesas, Romo'ko Ezkorak, Andra Mariko New Team, Ander Deuna, Txomin Aresti, Azkorri, Altzaga, Jado, San Bartolome, Betiko, Zipiriñe, Berango School, Europa, Trinidad...

Horiek guztioriek badute zer ospatu aurretik, Bizkaiko Saskibaloi Federazioak 75 urte bete dituelako, eta federazioak antolatuko dituen 20 ekimenetako askotan parte hartzeko aukera izango dutelako.

German Monge Bizkaiko Saskibaloi Federazioaren presidenteak azaldu ditu 75. urteurrenerako Federazioak prestatu duen programaren jarduera nagusiak. Denera, hoguei bat ekimen egingo dituzte 2016an. Eskualdean haietako bat egingo da: uztailaren

16an eta 17an Hondartza-saskibaloi-ko Lehenengo Txapelketa egingo dute Sopelan, Ugesaski Kirol klubaren eta Sopelako Udalaren elkarlanari esker.

Era berean, 75. urteurrenaren logoa duten pegatina ezabagaitzak banatzeari ekin dio Federazioak, talde denek saskietan txerta ditzaten. Gainera, 2016ko eskola-baloiairen diseinua otsailerako deitutako lehiaketa publikoan erabakiko da: urteurrenagaz lotuta egongo da. Hori egin ostean, 3.000 baloi baino gehiago banatuko dituzte zentro denen artean, urteurrena ospatzeko diseinu bereziagaz.

Hezibidean dabiltzan klubek oroi-menezko domina ere eskuratu ahal izango dute, Bilbao Basket, Gernika Bizkaia edo Bilbao BSRgaz lehiatuz gero. Hiru taldeek elkarren segidan jokatuko dute martxoaren 20an. Ordurako, talde horiek urteurreneko kamiseta bereziak izango dituzte. Arreta handiagoa isiotuko du Harlem Globetrotters talde mitikoak; maiatzaren 19an jokatuko dute Bilbao Arenan. Beste ekimen bat izango da urrezko baloi erraldoia paratzea federazioaren



Urteurrenako programaren aurkezpen-ekitaldia. © BIZKAIKO SASKIBALOI FEDERAZIOA


egoitzan, aurtan eta datorren urtean Bizkaian federatutako jokalariek sinatzeko aukera izan dezaten.

Halaber, 75 urteotan lehenengo aldiz, Bizkaiko gazte eta kadeteen finalak elkarren ondoan egingo dituzte, jai-giroan, Casilla pabiloian. Gazteen finalak apirilaren 29, 30 eta maiatzaren 1ean izango dira; eta kadeteenak, aldiz, maiatzak 6, 7 eta 8an. Ikusgarria izango da saskibaloiz bizkaitarraren gainean apiril eta maiatzean Bilbon

egino duten atzera begirako erakusketak. Ildo horretan, Angel Gil de Celis federazioaren idazkariak ekainean aurkeztuko du prestatzen dabilen liburua. Dokumentala ere egingo dute.

Bestalde, pasa diren 75 urteei aurpegia ipintzearren, urte bakoitzeko jokalari bategaz 1941 eta 2016 bitarteko talde-argazkia aterako dute Bizkaia frontoian. Azkenik, ekainaren 17an, 75. urteurrenaren gala egingo dute Euskalduna Jauregian. ◀

hirulka



hirukalagunentzako OHARRA:

2016ko kuotak

HIRUKAlagun zaretenei,
hurrengo egunotan 2016ko
kuota kobratuko dugula
ohartarazi nahi dizuegu.

- **ERREZIBO BIDEZ KOBRAKETA AUKERATU BAZENUEN**, zure kutxan edo bankuan dagokizun zenbatekoa kobratuko dizugu hurrengo egunotan. Zenbatekoa aldatu nahiko bazenu, jar zaitez gugaz harremanetan: ***administrazioa@hiruka.eus*** epostan, **KUOTA** gaia adieraziz (gutxienekoa 35 €).
- **KOBRAKETA TRANSFERENTZIA BIDEZ AUKERATU BAZENUEN**, hurrengo egunotan diru-sarrera burutzea eskatzen dizugu: Laboral Kutxa IBAN: ***ES84 3035 04 2148 4210000739***

**hirukalagun edo hirukabazkide
bihurtu gura baduzu, gu pozarren!**

 **administrazioa@hiruka.eus**
944 911 337

HIRUKAko kide izan gura duzu?

Bi aukera dituzu:

- ### 1 Proiektuan barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez:

BAZKIDE ERABILTZALE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 1.000 € + Urteko kuota: 30 €
- **Norbanakoak:** 100 € + Urteko kuota: 30 €

BAZKIDE LAGUNTZAILE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 200 € + Urteko kuota : 33 €
- **Norbanakoak:** 50 € + Urteko kuota : 33 €

- ## 2 Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez:

HIRUKA LAGUNA

- Urtero ekarpena eginez (gutxienez 35 €) proiektuaren bultzatzaile izango zara, hainbat onurez baliatuz.

☐ Bazkide Erabiltzailea	Hiruka laguna
☐ Bazkide Laguntzailea	☐ Urtean 35€ ☐ Urtean _____€
Izena	NA
Abizenak	
Helbidea	
Posta kodea	Herria
Herrialdea	Telefona
E-posta	
Kontu korrante zenbakia	

Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona: Martikoena 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Personalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileak HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzailearen harremanetan jarzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikazioak helarazteko. Beteleko erabilerarik erabiltzailearen aurkeztu baimen zehatza behar du. Erabiltzaileak inon duenetan datuak zuzentzeko edo kentzeko bide eskubideak bete ditzake helbide honetan idatziz: hiru@h3rka.eus

Euskal Herriko Kopa, etxean



Daborduko, hamahiru partida irabazi dituzte segidan Askartzako emakumeek. © ASKARTZA IGERIKETA ELKARTEA

Askartza Igeriketa Elkarteko emakumeen waterpolo-taldeak Euskal Herriko Kopa irabazi zuen pasa den domekan, etxean, Askartzako igerilekuan. Leioaztarrak finalaurrekoetan nagusitu zitzaizkien Bidasoako jokalariei 4-6, estu-estu. Lasaiagoa egin zitzairen finala, Kantabriako Santoña taldea erabat mendean hartu baitzuten. Kontuak hala, Isusko Ariasek entrenatzen dituen emakumeek 13-5 irabazi zuten. Kopa jasotzeaz gainera, segidan irabazitako 13. partida izan zen leioaztarentzat.

Gizonezkoen sailkapenari dagokionez, aurrean ez zen sailkatu Uribe Kostako talde bat ere Askartzan lehiatzeko. Finala derbi nafarra bilakatu zen, eta bertan Nafarroa C taldea gailendu zen, kostata bada ere. Izan ere, partida ikusgarri baten ostean, 9802 klubak penaltietaraino heltzea lortu zuen. Baina azkenengo emaitza 12-11 izan zen Nafarroa Cren alde. ◀

Batzar nagusia egingo du Leioa Mendi Taldeak

Zapatu honetan, urtarrilak 30, ohiko batzar nagusia izango du Leioa Mendi Taldeak. Susana Ruiz elkarteko presidenteak zabaldu duenez, bilera 17:00etan deitu dute, Sakonetako kiroldegiko gela didaktikoan. Quorum nahikorik izango ez balitz, 17:30ean hasiko lirateke. Bertan, honako gaiak jorratuko dituzte: 2015ean klubak izan duen jardura eta kontuen balantzea; aurtengo ekimenen egitaraua eta aurrekontuak; lizentzia eta aseguruen gaineko informazioa; Zuzendaritza Batzordeko arduradun berriak onartzea; eta bazkideek gura dituzten bestelako gaiak. ◀

Mendibikeren teknifikazio-saioa, domekan

Gorlizko Mendibike txirrindularitza-elkartek mendiko bizikletaren teknika hobetzeko ikastaroa eman go du domekan, hilaren 31, 09:30etik aurrera. Saioa egiteko, elkartearen egoitzan jarri dute hitzordua. Han, teoria eta aholkuak azaldu ostean, hainbat lekutara joango dira, azaldutakoa oztupoakaz praktikan ipintzeko. Besteak beste, «mendan aurki ditzakegun oztupoak gainditzeko amarruak» erakutsiko dituzte. Bazkideek webgunean eman dezakete izena. Bazkide ez direnek posta elektronikoz galdetu behar dute ea lekurik dagoen. ◀

info+: Mendibike.net / mendibike@mendibike.net



Erandioko Atletismo Eskolaren 51 kirolari txikik parte hartu zuten, pasa den domekan Muskizko Eskolen Arteko XXV. Krosean. Mutiko kimu erandioztarrek Bizkaiko Txapelketa irabazi zuten. Eskola arduradunek «zoragarritzat» jo dute kirolari denen lana. © ERANDIOKO A. E.

I

Iñaki Bítxitegia

MONTBLANC, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Tellebxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Zabala 9
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

OINUTSIK
KONSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (Kol. Zb. 236)

Zubigane, 4
48600 Sopela
Tlf: 94 404 74 20
podologia@oinutsik.com



OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN ZUTABE,
OINEZ EDONORA
HEL ZAITEZKEI
Metroko irteeratik gertu (150
metrotara). Correos dagoen
eraikitza berdinean.

Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



Oinutsik zentroan

Oin-tratamendu baterako lehenengo kontsulta bat zozkatuko dugu

Oinutsik podologia-zentroaren ekimenez, oin-tratamendurako lehenengo kontsulta bat zozkatuko dugu. Gura baduzu, otsailaren 4a baino lehen, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

Zorion-agurrak

Urtebetetze, ezkontza zein jaiotza...

Bidali zeurea!

publi@hiruka.eus
94 491 13 37



ZURIÑE
SANTURTZI
Aita eta amaren partez

Ettxeko neskatoak zortzi urte beteko ditu asteazkenean! Zorionak maitea! Txokolatezko muxu gozo-gozoak opa dizkizugu amatxok eta aitatxok!



ANA
ERROMO
Xiraren partez

Un blenbe! Zorionak, Anatu! Besarkada, laztan eta musuak denon partez, 2016. urtea zoragarria izango da! Txirriaska altxa kopa hori



URTZI
BARRIKA
Lagunen partez

Zorionak barrikotzar jator hori! Lana alde batera utz ezazu egun batez eta zure egunaz gozatu! Kaña batzuk aterako dituzu? Gora kopak! Muxu

Sudokua

			7					6
	4					8		
1	8				2		7	
	1	9		7				
			9		5			2
						6		3
7	5		3					9
			4	6			1	

Gogoan hartu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

Soluzioa

7	1	5	6	9	4	8	3	2
6	4	2	1	8	3	9	5	7
3	8	9	7	2	5	1	6	4
2	9	3	5	1	6	4	7	8
8	5	4	9	7	2	6	1	3
1	6	7	4	3	8	2	9	5
4	7	6	2	5	9	3	8	1
5	2	8	3	6	1	7	4	9
9	3	1	8	4	7	5	2	6

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Gura zenuen kontua ez bazitzaizun ondo atera, ez hasi errua ingurukoei botatzen. Arazo baten orde, bi izango dituzu eta.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Zure laguna dela esaten duen horrek egundoko zaratara sortzen du inguruan. Zelango bakea hartuko duzun hura joandakoa!



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Egunotan normalean baino asti gehiago izango duzu zuretzat. Ondo merezita daukazu denbora hori. Hortaz, ez nekatu lar, baina balia egizu.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Abere berria sartuko da familian. «Txakurra ala katu?», ohiko galderari bueltaka bazabiltza, gogoratu hortik kanpo ere bizitzak badagoela.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Zinema, antzerkia, literatura... gozatzen denbora eman ahal izango duzu. Ederra patxada! Halere, ez duzu uste zerbait mugitzea ere ondo legokeela?



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Tabernan esan dezakezu auziaren azterketa sakona egin duzula eta emandako iritzia horren emaitza dela, baina zuk badakizu zelango lana egin duzun.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Behar ez duzunean, trabatuko zara agiriak betetzen. Ez da ona dislexia izatea, baina lasai, kontu apur batezaz ez dizu arazorik sortuko.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Goizaldeetan herriko txoko galduen bila ibiltzeak aurkikuntza zoragarriak ekar ditzake... edo usteka-be galantak.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Bizitza miraria bada zuretzat, natura gustukoa baduzu eta zure burua ekologizatatzat badaukazu, zergatik ez diozu ura botatzen landareari?



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Paper eta datu denak ez dira hain garrantzitsuak leku guztietara eramateko. Egundoko motxila lepoan eroan gura ez baduzu, egin aukeraketa.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Ahalegin du zaitez sukaldaritzan gauza berriak das-tatzen. Dena ez da bakailaoa marmitan, edo inda-bak bor-bor.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Une gozoa pasatzen zabilta. Egoera askotan errepikatuko da, zorionez. Halere, garai okerragoak helduko dira, tarteka.

Sukaldean

San Blaseraiko, Zurikaldaiako erroskillak tradizionalak



OSAGAIK:

Gurina, gatz, ura, irina, arrautzak, azukre lustrea, legamia, anisa eta merenge italiarra.

ZURIKALDAI-NEGURI

Neguriko Etorbidea, 9 (Getxo)

Tel.: 944 911 487

www.pasteleriazurikaldai.com

Otsailaren 3an San Blas eguna ospatuko dute Barrikan, besteak beste. Hori dela-eta, eztarria gaitzetatik babesteko koloretako kordelak erosteaz gainera, erroskillak jateko eguna ere izango da. Erroskillak egiteko tradiziozko errezeta bat ekarri dugu oraingoan orriotara, Zurikaldai-Neguri gozotegiarena. Denda zuzentzen duen Kimetz Garatek azaldu duenez, erroskillak horiek egiteko bi masa batu beharra dago. Lehenengorako, ura, gurina, gatz eta irina nahastuko ditugu; ondoren, masa horri arrautzak gehitzeko. Behin oreka eginda, alde batera utzi, eta bigarrena egiteari ekin gogo. Horretarako, gurina, azukre lustrea, arrautzak, irina eta legamia nahastuko ditugu. Ore biak

egin eta gero, batu eta anisagaz nahastuko ditugu. Ostean, erroskillak forma duten moldeetan ipiniko dugu oreka, eta labe indartsu batean egosiko ditugu, 200 gradura, azpialdea bakarrik isiotuta dagoela. Lehenengo egosketa horren ondoren, hozten utziko dugu. Jarraian, azukre lustrea eta anisagaz nahastuko merenge italiarrean blaitu, labea «suabeago» jarri, eta berriro egosiko dugu. Oraingoan, goialdea isiotuta eta 150 gradura, erroskillaren merenge-estaldura gogortzeko. Hori egindakoa, zerbitzatzeko prest egongo dira, San Blas eguna ospatzeko mokadurik goxoena. Etxean egin gura ez dutenek kiloa 32 euroan erosi ahal izango dute Zurikaldai-Neguri denda bertan. ◀

faceguk



Mozorroa josi ala erosi?

IKER ALEJANDRO PALOMO

BERANGO



Guk egiten ditugu, etxean aurkitzen ditugun materialak erabilia. Merkeago ateratzen da horrela; izan ere, mozorroak egun baterako bakarrik izan ohi dira.

IÑAKI BORONAT RUIZ

BERANGO



Aratusteak gorroto ditut, batez ere lan handia izaten dudalako egun horietan. Ordu txikiak arte lan egin behar izaten dut tabernan; ez daukat mozorrotzeko aukerarik.

MARIAN PIÑERO SANCHEZ

BERANGO



Seme-alabak izan nituenetik, mozorroak erostea baino, guk egitea nahiago izaten dut; dibertigarriagoa da. Baina, ez pentsa askoz merkeagoa denik!

JONE ELORRIAGA GARCIA

BERANGO



Umeakaz egonda, politagoa izaten da mozorroak eurakaz egitea. Errostea oso aukera erraza da. Bestalde, zuk zeuk eginda, zelakoa gura duzun aukera dezakezu.

CRISTINA RODRIGUEZ ALVAREZ

BERANGO



Mozorroak egitea gustatzen zait; baina, denbora aldetik nahiko estu ibiltzen garenez, azken urteetan erosi behar izan ditugu. Hala ere, eskuz egitea politagoa da.



Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua